EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# 2022ko JARDUEREN MEMORIA

# AURKEZPENA

Memoria honen helburua da instituzioei, erakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2022. urtean egindako jardueren berri ematea.

Lehenengo apartatuan, Emakundek zer egiteko eta zer ikuspegi duen jaso da, bai eta funtzioak betetzeko zer baliabide tekniko eta kudeaketa-baliabide dituen ere. Hurrengo apartatuetan, Emakundek jarduketa-eremuetan hedatzen dituen lan-ildoak eta programak deskribatu dira: berdintasun-politika publikoen diseinua, sustapena, koordinazioa, aholkularitza, jarraipena; emakumeen ahalduntzea eta jendartean duten parte-hartzea bultzatzea; jendartea sentsibilizatzea, publiko espezifikoei zuzendutako hainbat programa barne; berdintasuna enpresetan; berdintasuna komunikabideetan eta publizitatean; emakumeen kontrako indarkeria matxista; berdintasunerako eskubideen aldeko defentsa sektore pribatuan, eta berdintasun-arloko prestakuntza eta azterlanak.

2022. urtea bi gertaeragatik nabarmendu da: alde batetik, Eusko Legebiltzarrean, martxoaren 3an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea onetsi zen, eta, bestetik, abenduaren 20an indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko III. Akordioa onetsi zen. Biak ala biak mugarri garrantzitsuak dira berdintasunezko eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko gizartea lortzeko.

Berdintasunerako Lege berritua lehenengo Berdintasunerako Legea egin eta 17 urtera onetsi da. Lege hori, argi eta garbi, gure herrialdeko berdintasunerako mugarri izan zen, eta, beraz, lege berrituak oinarri onak ditu. Lege berria prestatzeko, lan kolektiboa eta partaidetzazkoa egin da; 400 ekarpen baino gehiago jaso dira, bai gizarte zibiletik, bai instituzioetatik, eta, era berean, Legebiltzarrean egindako izapidetze



Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea onestea.



Miren Elgarresta. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

horretan, berdintasunaren aurrerapenaren aldeko herri-adostasunaren isla bihurtu da. Horrela, EAEko gizartearen eskaerari erantzunez, lege-aldaketa horrek berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak eta teknikoak, eta giza baliabideak sendotzea aurreikusten du.

Bestalde, indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakundeen arteko III. Akordioa onestea ere mugarria izan da; izan ere, akordio hori, 2001ean lehen aldiz onetsi zenetik eta 2009an eguneratu zenetik, koordinaziorako funtsezko tresna izan da, eta emakume biktimen arreta sistematizatu du. Hirugarren akordio hori urrats garrantzitsua da helburu nagusietako batean: biktimen beharrak erdigunean jartzea.

2022an, halaber, Miren Elgarresta izendatu da Emakundeko zuzendari berri, eta Gizonduz ekimenaren 15. urteurrena ospatu dugu. Ekimen horren xedea da gizonen parte-hartzea, kontzientziazioa eta inplikazioa sustatzea berdintasunaren alde. Hasiera-hasieratik, proiektu hori emakumeen ahalduntze-lanaren osagarri eta indargarri izateko bideratu zen. Gizonduz ekimenaren lorpenak ospatzeko, Emakundek «Gizonezkoak, maskulinitateak eta politika publikoak. Berdintasunarekiko konpromisoa» nazioarteko kongresua egin du. Bertan, mundu mailan maskulinitateetan adituak diren pertsonek parte hartu dute.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde eta elkarte batzuetan, profesionaltasunaren eta konpromiso sozialaren bidez memoria honetan jaso diren jarduera guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakundeko Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundean lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko guztioi.

# AURKIBIDEA


AURKEZPENA .......... 2

1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA. .......... 6

1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura organikoa .......... 7
1.2. Zuzendaritza Kontseilua .......... 8
1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak .......... 9
1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana .......... 9
1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa .......... 10
1.6. Euskararen erabilera normalizatzeko plana estrategikoa .......... 10
1.7. Dirulaguntzen plana .......... 11
1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea .......... 11
1.9. Harreman estua gizartearekin .......... 13

2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK .......... 23

2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea .......... 24
2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana .......... 25
2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana .......... 25
2.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea .......... 28
2.5. Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak .......... 29
2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa .......... 31
2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordea .......... 32
2.8. Lankidetza-proiektuak EUDELekin .......... 33
2.9. Dirulaguntzak, udalerri, kuadrilla eta mankomunitateentzat .......... 37
2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza .......... 37

3. ESTATU-MAILAKO ELKARLANA ETA NAZIOARTEKOTZEA .......... 39

3.1. Estatuko berdintasun-arloko erakundeekiko lankidetza-ildoak .......... 40
3.2. Europaren proiektuari laguntzea .......... 42
3.3. Nazioarteko lankidetza .......... 44

4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA .......... 46

4.1. Emakunderen Aholku Batzordea .......... 47
4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak .......... 48
4.3. Emakumeen elkarteentzako prestakuntza eta sentsibilizazioa .......... 49
4.4. Elkarteekin egindako proiektuak eta lankidetza-ildoak .......... 50

5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA .......... 51

5.1. Berdintasunaren aldeko Herri Ituna .......... 52
5.2. Nahiko programa .......... 55
5.3. Gizonduz ekimena .......... 57
5.4. Martxoaren 8ko kanpaina .......... 61
5.5. Azaroaren 25eko kanpaina .......... 62
5.6. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria .......... 63
5.7. Eskola-agenda .......... 64
5.8. «30 emakume ahaztezin» erakusketa .......... 65
5.9. Emakunde aldizkaria .......... 65

6. BERDINTASUNA ENPRESETAN .......... 66

6.1. Berdintasun-planak: aholkularitza .......... 67
6.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak .......... 67
6.3. Berdintasunerako lankidetza-erakundeak aitortzea .......... 68
6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena .......... 68
6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetza-erakundeen Sarea .......... 69
6.6 Enpresentzako prestakuntza .......... 70
6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetza-ildoak .......... 71

7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN..........72

7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea ..... 73

7.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa..... 74

7.3. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak ..... 75

8. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA ..................... 76

8.1. Beldur Barik programa ..... 77

8.2. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak ..... 79

8.3. Lankidetza sozialerako ildoak eta proiektuak ..... 80

8.4. JABETUZ programa..... 84

8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak..... 85

8.6. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea ..... 87

8.7. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak. ...... 90

8.8. Adineko emakumeak ..... 91

8.9. Emakumeen genitalen mutilazioa..... 92

8.10. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa......... 92

8.11. Erakundearteko lankidetza-ildoak eta -proiektuak..... 95

9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN..... 97

9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza..... 98

9.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa..... 98

10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN ...................... 100

10.1. UPV/EHUko udako ikastaroa..... 101

10.2. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak..... 102

10.3. Lankidetza IVAPekin ..... 103

10.4. Lankidetza-ildoak unibertsitateekin..... 103

11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK ......105

11.1. Txostenak eta azterlanak ..... 106

11.2. Ikerlanetarako bekak..... 106

11.3. Argitalpenen lehiaketa..... 107

11.4. Argitalpenak..... 108

11.5. Dokumentazio Zentroa..... 108

12. ERANSKINAK ..... 111

1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.........112

2. ERANSKINA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda..... 115

3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza kontratatzeko dirulaguntza jaso duten enpresen eta entitateen zerrenda..... 122

4. ERANSKINA: BAI SAREKO lankidetza-erakundeen zerrenda ..... 124

5. ERANSKINA: Diruz lagundu diren emakumeen kontrako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda..... 126

13. ARGAZKIAK..... 129

# 1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Emakunde Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da, nortasun juridiko propioa duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea du helburu. Bere funtzioak betetzeko, Emakundek langile eta aurrekontu propioak ditu, baita kudeaketa-sistema aurreratu eta garden bat ere.

## 1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura organikoa

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea izaera administratiboa duen erakunde autonomo bat da, nortasun juridikoa eta aurrekontu propioa dituena. Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortu zen, eta 2020tik Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dago[1]. 2022an, Izaskun Landaida Larizgoitia[2] eta Miren Elgarresta Larrabide[3], izan dira Emakunderen zuzendaria eta ordezkaria, eta Zuriñe Elordi Romero[4], idazkari nagusia.

| | |
|---|---|
| **Egitekoa** | Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko —benetakoa eta eraginkorra—, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan. |
| **Ikuspegia** | Emakundek erreferentziako eredua izan nahi du berdintasunerako politikak sustatzen, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta bai kanpoan, helburuen betetze-maila handia eta harekin lankidetzan dihardutenherritar, pertsona eta erakundeek, eta bere langileek, egiten dioten balorazio ona direla eta. |
| **Jarduketa-esparruak** | - Administrazio publikoak.<br>- Enpresak eta erakundeak.<br>- Emakumeen elkarteak.<br>- Komunikabideak eta publizitatea.<br>- Herritarrak. |

| | |
|---|---|
| **Egitura organikoa** | **Zuzendaritza-organoak:**<br>- Zuzendaritza Kontseilua.<br>- Emakundeko zuzendaria.<br>- Emakundeko idazkari nagusia.<br><br>**Kudeaketa-organoak:**<br>Funtzio-arloak:<br>- Prentsa eta komunikazioa.<br>- Administrazioa.<br>- Aholkularitza juridikoa eta informazioa.<br>- Lankidetza instituzionala.<br>- Emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea.<br>- Programak eta prestakuntza.<br>- Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.<br>- Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzea.<br><br>**Koordinazio-organoak:**<br>- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.<br>- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.<br>- Emakunde - Emakumearen Euskal Institutuaren Aholku Batzordea.<br>- «Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren» Jarraipen Batzordea.<br>- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea. |

1. Irailaren 16ko 18/2020 Dekretuak arautua.
2. Urtarrilaren 29ko 137/2013 Dekretuak izendatua.
3. Urriaren 4ko 117/2022 Dekretuak izendatua.
4. Ekainaren 27ko 184/2017 Dekretuak izendatua.

## 1.2. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua[5] da Emakunderen zuzendaritza-organo nagusia, eta honako kide hauek ditu: kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; lehen kontseiluburuordea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua; bigarren kontseiluburuordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte-gaiak; foru- eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria.

2022ko ekainaren 8an ohiko bilkura bat egin du Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak. Bilkura horren helburu nagusia izan zen dokumentu hauek onartzea (araudiak eskatzen baititu):

- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2021.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2020.
- Emakunderen 2021eko jarduketen memoria.

Bilkuran, halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa onestearen eta EAEko Berdintasunerako VIII. Plana egiteko prozesuaren berri eman zitzaion kontseiluari.



Zuzendaritza Kontseilua.



Zuzendaritza Kontseilua.

5. Urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua.

## 1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak

Emakunden 38 langile aritu dira 2022an: 31 emakume eta 7 gizon. Teknikariek osatutako taldea da —eta, bereziki, berdintasun-arloko adituena— denetan ugariena.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zuzendaria**<br><br>**Idazkaritza Nagusia** | • 1 Prentsa aholkulari<br>• 7 Arlo-arduradun | • 12 Berdintasun-teknikari<br>• 3 Aholkulari juridiko<br>• 1 Artxibo-teknikari<br>• 1 Azterlan-teknikari<br>• 1 Administrazio-Kudeaketako teknikari | • 2 Goi-kargudunen idazkari<br>• 1 Administrari<br>• 1 Administrari informatiko<br>• 5 Laguntzaile orokor<br>• 1 Mandatari gidari |

Emakundek 7.809.000 euroko aurrekontua izan zuen 2022an bere programak eta ekintzak gauzatzeko[6]. Aurrekontua aurreikusitako aurrekontu-partiden arabera erabili zen, eta betetze-maila % 99,87koa izan zen.

## 1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Emakunderen ekintza-plana da, eta bertan zehazten da 2022-2024 aldirako lan-estrategia, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren eta XII. legegintzaldirako Gobernu Programaren esparruan. Emakundek bultzatutako politikak planifikatu, lehenetsi eta irisgarri egiteko tresna bat izateaz gain, politika horiek eraginkorrak eta eraldatzaileak izateko behar den konpromiso politikoaren adierazpena ere bada.

Urteko jarduketak planifikatu eta ebaluatuz garatzen da plana. 2022rako ekintza-plana 25 helbururen inguruan egituratzen da, eta guztira 137 jarduketa biltzen ditu, Gobernu Onean aurrera egiteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko, ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista ezabatzeko. Honako hauek dira, zentralak eta lehentasunezkoak direnez, Emakunderen lanaren eta baliabideen zati handi bat biltzen duten lehentasunezko 4 helburuak:

1. EAEko berdintasun-politika publikoen buru izatea.
2. Gizarte zibilaren konpromisoa eta protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz aurrera egiteko.
3. Genero-arrakalak murriztea ekonomia- eta gizarte-esparruetan.
4. Erakundearteko koordinazioa indartzea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean.

Planaren ebaluazioaren arabera, aurreko urteetan bezala, betetze-maila handia izan da, bai jarduketen garapenean, bai aurrekontu-betearazpenean.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak arautua.

## 1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa

Emakunderen Sendotze eta Hobekuntza Planaren (2022-2024) esparruan, 2022ko plana egin eta gauzatu da, eta 2021ekoa ebaluatu da. Emakunde 2015etik ari da kudeaketa publiko aurreratuaren eremuan lanean, eta 2022an pertsonekiko konpromisoa, informazioa eta barne-komunikazioa nabarmendu ditzakegu, Harrera eta Agurra egiteko Protokoloa kudeatuz eta langileen iritzia ziurtatzeko behar diren metodoak bultzatuz, zorion-mezuen, iradokizunen eta kexen postontziaren bidez.

Bestalde, Q-epean, alegia, kudeaketaren bikaintasunarekin konprometitutako EAEko erakundeen sarean parte hartzen jarraituko da, bai eta horren barruan egituratzen diren taldeetan ere. Testuinguru horretan, kudeaketa aurreratuko ereduen autoebaluazio- eta diagnostiko-tresna bat egitea azpimarra dezakegu.

## 1.6. Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Emakunderen 2018-2022 Plan Estrategikoaren esparruan, 2022ko urteko kudeaketa-plana egin eta gauzatu, eta 2021ekoa ebaluatu da. Gogoratu behar da BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko aurkeztu zela Emakunde 2020an; goi-mailako kalifikazioa lortu zuen, eta azken bi urte hauetan, besteak beste, ebaluazio horretan proposatutako hobekuntza-esparruetan lan egin da, hala nola errotulazio fisikoa eta digitala aztertu dira, Emakunderen harrera-protokoloa berrikusi eta eguneratu da, eta kontratazio-agirietan erabilitako hizkuntza-irizpideen jarraipena egin da.

Bestalde, eta 2022an garatutako jarduketekin jarraituz, honako hauek nabarmendu behar dira: Euskara Batzordeak planaren komunikazioan eta jarraipenean egindako lana, harrera-protokoloa eta Emakunderen hizkuntza-irizpideak eguneratzea, eta arloz arlo hura ezagutu eta aplikatzeko egindako lana, bi Euskunde dibulgazio-buletin egiteko lana, langileentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak (Mintzasaioak eta Eusle proiektua), eta, etorkizuneko ekintzak planifikatze aldera, langileek hizkuntza normalizatzeko prozesuaren inguruan dituzten iritziak jasotzeko egindako lana. Euskarazko dokumentazioa sortzeko proiektu pilotu bat diseinatu eta abian jarri da programen eta prestakuntzaren arloan. Orobat, urtero egiten diren kontratazioak identifikatu eta zerrendatu dira, gutxienez horietako biren kontratazio-agiriak euskara hutsean egiteko. Halaber, hizkuntza-normalizazioko teknikariekin koordinatzeko bileretan parte hartzen jarraitu dugu, baita hizkuntza-politikaren arloan Administrazio publikoen arteko Koordinazio Batzordearen (HAKOBA) talde teknikoaren bileretan ere, EAEko administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko. Euskaraldiarekin lotutako jardueretan ere parte hartzen jarraitu da, baita AEK-k sustatutako jardueretan ere, eta praktika berri bat egin da Euskalitek eskatuta.

## 1.7. Dirulaguntzen plana

2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eskatzen duenarekin bat etorriz, haren aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztu ziren, baita horiek lortzeko behar den epea, aurreikus litezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak ere.




Webgunea.

Analisia bost eremutan egituratzen da:

- Emakumeen ahalduntzea sustatzea, asoziazionismoaren bidez, eta haien aintzatespena egitea.
- Erakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak onartuz.
- Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea, sentsibilizaziorako jarrerak zabaltzen dituzten erakunde eta elkarteei lagunduz.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako azterlanak eta ikerketak sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko jarduketak aintzatestea.

## 1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea

**INFORMAZIOA:** 2022an, Emakundek jarraitu du egiten dituen jarduketen inguruko informazio eguneratua ematen herritarrei, bereziki bere webgunearen eta sare sozialen bidez, baita Irekia atari informatiboaren eta komunikabideen bidez ere.

- WEBGUNEA: Emakunderen webgunea berritu egin da, errazagoa izan dadin, eta ingelesezko atala gehitu zaio, erakundeari buruzko nazioarteko informazio-eskaerari erantzuteko. Irudia berrituta, webguneak herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzak eskaintzen jarraitzen du. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, baita sare sozialekin, Irekia atariarekin, blogekin eta abarrekin interakzioan aritzeko ere.

- IREKIA: Emakunderi buruzko albisteak eta eguneratzeak agertu dira Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian.
- SARE SOZIALAK: mantendu eta indartu egin da 2022an, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua; presentzia handiagoa lortu da Facebooken eta Twitterren, eta horrek esan nahi du igoera esanguratsua egon dela jarraitzaile kopuruari dagokionez; Instagramen aldeko apustu handia ere egin da, belaunaldi gazteenengana iriste aldera. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka YouTuben.

| Jarraitzaileen kopurua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Twitter | 9.113 | 9.446 | 9.723 |
| Facebook | 11.561 | 12.128 | 12.992 |
| Instagram | 3.636 | 4.336 | 4.966 |
| **Guztira** | **24.310** | **25.910** | **27.681** |

- KOMUNIKABIDEAK: herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta jarduerez informatzeko, erakundeak sentsibilizazio-eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidaltzen ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu. Era berean, Emakunde da komunikabideen erreferente nagusietako bat emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai jorratzeko.

**GARDENTASUNA:** 2022an, Emakunderen web-orrian gardentasunari buruzko eremua elikatzen eta eguneratzen jarraitu da. Bertan, Emakunderen antolaketari eta plangintzari buruzko informazio irisgarria eskaintzen da, bai eta haren zerbitzu-katalogoa, kontratuen eta dirulaguntzen inguruko jarduerak eta abar ere. Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren gardentasuneko webgunerako esteka bat gehitu da.

**KONTUAK EMATEA:** Emakundek jardueraren betetze-mailaren kontuak ematen ditu Eusko Legebiltzarraren eta beste hainbat instituzio, erakunde eta gizarte-eragileen aurrean, hainbat bideren bidez. Hilero, Emakundek gobernu-programa betetzeko egindako jarduketen berri ematen du Irekian. Urtero, jarduketa-memoria bat prestatu, eta webgunean argitaratzen du, beste hainbat arlok egindako memoriekin batera; adibidez, Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzeko arloak, Begira-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak eta Gizonduz ekimenak egindakoak.

Eusko Legebiltzarraren aurrean osatzen da kontu-ematea. Bertara bidaltzen dira urtero araudiak eskatzen dituen txostenak eta lehen aipatutako urteko memoriak. Gainera, 2022an, Emakundeko Zuzendaritza behin agertu da Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordean, eta idatzizko 9 galdera eta 5 informazio-eskaera erantzun ditu.

# 1.9. Harreman estua gizartearekin

Emakundek harreman estua izan du 2022an gizarte-eragileekin. Hala, Emakundeko zuzendariak eta idazkari nagusia hainbat instituzio, erakunde, enpresa eta entitatek antolatutako jardueratan izan dira.

Horrela, erakundeak berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa indartzen du gizarteko esparru guztietan, eta entzuteko aukera du.

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Genero Berdintasunaren Europako Institutua | EIGEk antolatutako «Transversalidad de género en las políticas públicas» saioan esku hartzea, Europako Batzordearen Madrilgo egoitzan. |
| Europako Parlamentuaren Espainiako Bulegoa | Topaketa Eugenia Rodríguez Palopekin, alegia, Europako Parlamentuko Ezkerreko Taldeko eurodiputatu eta Emakumeen Eskubideen eta Genero Berdintasunaren Batzordeko lehendakariordearekin, emakumeek Europan dituzten desafio eta erronkak azaltzeko eta partekatzeko. |
| Bizkaiko Batzar Nagusiak | Bizkaiko Emakume Hautetsien VI. Batzarrera joatea, Gernikako Batzar Etxean, lurraldeko kulturaren erreferente diren bost bizkaitar omentzeko. |
| Arartekoa eta EHU/UPV | Emily O'Reilly Europako Arartekoak emandako hitzaldira joatea: «Kontu-ematea, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea: etika publikoko Europako estandarren bila». |
| Lehendakaritza, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia | - Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitzaren aurkezpenera joatea, Bilbora. Amina Mohammed Nazio Batuen Erakundeko idazkariorde nagusiak parte hartu zuen bertan.<br>- «Agenda 2030 Euskadi Basque Country Saria» banatzeko ekitaldira joatea, Donostiara. |
| Lehendakaritza, Kanpo Harremanen Zuzendaritza | - Emakunden harrera egin zitzaion Ramiro Ordoquiri, hau da, Buenos Aires probintziako senatuko presidentetzako nazioarteko lankidetza eta harremanen koordinatzaileari.<br>- Emakunden harrera egin zitzaion Alejandra María Vigori, hots, Cordobako (Argentina) senatari nazionalari. |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | Ignacio Ellacuria Sarian epaimahaikide gisa parte hartzea eta sari banaketara joatea. |
| Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila | - EAEn zainketa-eredu berri baterantz egin beharreko trantsizioari buruzko jardunaldira joatea, Donostiara.<br>- Justizia Zuzendaritzaren mendeko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) 31. urteurrena ospatzeko ekitaldira joatea.<br>- Berariaz emakume gazteei zuzendutako «#Berdinaldia (Berdintasunaren Belaunaldia) – La ola del cambio» jardunaldira joatea, Axpe-Busturiara.<br>- EAEko espetxeetan egiten den lana aitortzeko ekitaldi instituzionalera joatea, Arabako espetxera. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Ardatz-Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 aurkeztea, Bilbon. |
| Hezkuntza Saila | 2021eko Euskadi Ikerkuntza Saria emateko ekitaldira joatea, Gasteizera. |

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, HAZIrekin batera | «Landa Emakumeak gara» jardunaldira joatea, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Amasa-Villabonara. |
| Osasun Saila | Osasun mentaleko estigmari buruz egindako erakundearteko mahaian parte hartzea, Gasteizen. |
| Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila, EAEko EGEF funtsen bulegoa | «Europa Euskadin» jardunaldian, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) EAEko garapen ekonomiko eta sozialari egiten dion ekarpenari buruzko eztabaida-mahai batean parte hartzea, Bilbon. |
| EITB | - EITBren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldira joatea, Bilbora, maiatzaren 16an.<br>- Esklerosi anizkoitza ikertzeko dohaintzak biltzeko EITB Maratoiaren 2022. edizioan parte hartzea, «Geldiezinak gara/Somos imparables» |
| Ertzaintza | Mahai bat moderatzea «Erronka berriak Gizakien Salerosketaren eta Sexu Esplotazioaren aurrean» jardunaldian. |
| Bizkaiko Foru Aldundia eta BBK | Berdintasunaren aldeko Zirgari Sarien V. edizioko sariak banatzeko ekitaldira joatea, Bilbora. |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Elbira Zipitria hezitzaile eta euskaltzale aitzindariari buruzko dokumentalaren estreinaldira joatea, Donostiara. |
| Hondarribiko Udala | Bilera Jenny Pearce eta Maider Marañarekin, zeinek Bidasoako Alardeen gatazkari buruzko erakundearteko mahaian parte hartzen baitute. |
| Arrigorriagako Udala | «Emakumeen Klasikoa» proiektuaren 3. edizioaren aurkezpenera joatea, Arrigorriagara. |
| Bilboko Udala | Biografía del cadáver de una mujer film laburraren aurkezpenera joatea, Bilboko Campos Elíseos Antzokira. |
| Beasaingo Udala | Herrilab3B Kontziliazio Erantzukideko Laborategiaren balantzearen aurkezpenera joatea. |
| Jaizkibel konpainia | - Hondarribiko Alardearen ospakizunera joatea, emakumeek bertan berdintasunez parte hartzea bultzatzeko.<br>- «Hondarribia berdintasunaren hiria» saria emateko ekitaldira joatea. |
| ARGIRI elkartea | San Martzial egunean Irunen egiten den Alarde Mistoaren ospakizunera joatea. |
| AMUGE-Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea | Genero Antigitanismoari buruzko Nazioarteko I. Biltzarrera joatea, Bilbora. |
| Altzoa, Eibarko emakume alargunen elkartea, eta FEVI, Euskadiko Emakume Alargunen Federazioa | Ate irekien jardunaldia eta Maite Bilbaori omenaldia, Eibarren. |
| Feministaldia | 2022ko Feministaldiko ordezkariekin bilera. |
| BAFFEST | BAFFEST-Emakume Argazkilarien Jaialdiaren 2022ko edizioaren aurkezpen-ekitaldira joatea, Barakaldora. |
| Marienea, Basauriko Emakumeen Etxea | Marienea-Basauriko emakumeen etxearen 10. urteurrenaren ospakizunera joatea. |
| Kultura Communication Desarrollo KCD GGKEa | «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 2022ko Jaialdiaren (14. edizioa) amaiera-ekitaldira eta sari-banaketara joatea, Bilbora. |

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| EUSKAL FONDOA-Sahararen aldeko koordinazio unitatea | - Emakunden harrera egin zitzaion Sultana Jaya Mendebaldeko Saharako giza eskubideen aktibistari.<br>- Saharako emakumeei zuzendutako ahalduntze politikoko tailer batean parte hartzea, Saharan. |
| Alboan | Emakunden harrera egin zitzaien Caddy Adzuba eta Julienne Basekeri, AFEMeko kazetariei (Association des Femmes des Médias du Sud Kivu) eta Kongoko emakumeen eta haurren eskubideen eta prentsa-askatasunaren aldeko aktibistei. |
| Mugarik Gabe | Emakunden harrera egin zitzaion Marina Gallego Zapatari, Kolonbiako Emakumeen Bake-bidearen koordinatzaile nazionalari. |
| UNESCO Etxea-UNESCO Euskal Herria | «Emakumeen eskubideak garapen jasangarrirako 2030 Agendan» jardunaldian hitzaldia ematea, Bilbon. |
| InteRed EH | Hezkidetzari eta Indarkeria Matxisten Prebentzioari buruzko II. Hezkidetza Kongresuaren inaugurazio-mahaian parte hartzea, Bilbon. |
| Bai Euskarari Elkartea | «Elkarrengandik Ikasten» programan parte hartzea. |
| Eusko Ikaskuntza | “Kultur kudeaketa feminista batetik” jardunaldiaren hasiera. Bilbon. |
| EnpresariAK, Euskadiko Emakume Enpresari, Zuzendari eta Profesionalen Federazioa | Hiru lurraldeetako AED (Bizkaia), AMPEA (Araba) eta ASPEGI (Gipuzkoa) elkarteek osatutako EnpresariAK elkartearen aurkezpen-ekitaldira joatea. |
| Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea | 2022ko Arabako Emakumeen Talentuaren Sariak banatzeko ekitaldira joatea, Gasteizera. |
| Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea | 2022ko AED Enpresa Saria emateko ekitaldira joatea, Bilbora. |
| Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa-KONFEKOOP eta Euskadiko Kooperatiben Goren-kontseilua (CSCE-EKGK) | «Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago» lelopean berdintasunaren alde lan egiten dutenen omenaldira joatea. Emakumearen nazioarteko eguna, Gasteizen. |
| Vital Fundazioa | «Emakumeen talentuari buruzko elkarrizketak» jardunaldira joatea. |
| Bizkaiko Psikologia Elkargoa | «Salud Mental con perspectiva de género II. Claves feministas para el abordaje de la violencia sexual» udako ikastaroaren inaugurazioa, Bilbon. |
| Euskadiko Arkitektura Institutua | «12 hilabete, 12 emakume-arkitekto» proiektuaren amaiera. «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Zentraltasun estrategikoa eta islak arkitektura-lanbidean. Estrategiak, ekintzak eta politikak» hitzaldia ematea, Donostian. |
| Deia egunkaria | «2022 Euskadiko erronkak: etorkizuna eraiki pandemiaren bi urteren ondoren» jardunaldira joatea. |
| DOT Coop | «The Future Game, bihar zer?» ekimenaren emaitzak aurkezteko ekitaldira joatea. Partaidetza-prozesu horretan, etorkizunari buruzko iritzia eman zuten 13.000 gaztek baino gehiagok. |

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| UPV/EHU | - Kazetaritza Sailak (UPV/EHU) eta Gureiker Ikerketa Talde Kontsolidatuak antolatutako «Emakumeak eta Komunikabideak» VIII. Jardunaldietara joatea, Bilbora.<br>- Antropologia Feministaren Nazioarteko I. Biltzarrera joatea, Donostiara, UPV/EHUko AFIT (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea) ikerketa-taldeak antolatuta, Ankulegi Antropologiaren Euskal Elkartearekin lankidetzan.<br>- «Violencia sobre la mujer: Retos y desafíos en torno al convenio de Estambul» udako ikastaroaren inaugurazioa, Donostian, Zuzenbide Fakultateak antolatuta. |
| Deustuko Unibertsitatea | - Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko «RESISTIRE proiektuaren emaitzen aurkezpena» webinarraren irekiera, Donostian.<br>- Ada Byron Sariaren IX. edizioko banaketa-ekitaldira joatea, Donostiara. Lourdes Verdes Montenegro saritu dute senior mailan eta Julia Guimar Niso gazte mailan. |
| Ekialde Institutua | Ur Handitan taldearen "Matxismoaren sarean" atalaren aurrestreinaldian parte hartzea, Gasteizko Ekialde II institutuan. |
| Olabide ikastola | Olabide ikastolaren 60. urteurrena ospatzeko Izaskun Arrue eta Elbira Zipitria Arabako ikastolen mugimendu kooperatiboaren bultzatzaileei egindako omenaldira joatea. |
| Euskadiko Futbol Federakundea | «Euskal Selekzioa-Txile» Emakumezkoen Futboleko Nazioarteko Partidara joatea, Gasteizera. |
| "Latsariak" dokumentala | 13 emakume garbitzaileren bizipenak eta testigantzak biltzen dituen "Latsariak" dokumentalaren estreinaldian parte hartzea. Zuzendaritza: Estibaliz Maguregi. Bilboko Castaños Gizarte Etxean. |
| Korrika | Korrika euskararen aldeko lasterketarekin elkarlanean aritzea. |




**"Europa Euskadin" jardunaldia.**




“#Berdinaldia – La ola del cambio” jardunaldia.



Bilera Ijito Herriaren Egunean.




Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna.




EITB Maratoia.



Jardunaldia Besainen.



Hondarribiko Alardea.



Irungo Alarde Mistoa.




Genero Antigitanismoari buruzko Nazioarteko I. Biltzarra.




BAFFEST, Emakume Argazkilarien Jaialdia.




Marienearen 10. urteurrena.




Bilera Sultana Yaya aktibista saharararrekin.



Ahalduntze politikorako tailerra. Sahara.




“Kultur kudeaketa feminista batetik” jardunaldia.




EnpresariAK aurkezpen-ekitaldia.




Arabako AMPEA Emakumeen Talentuaren XXII. Sariak.




“Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago” jardunaldia.




"Salud Mental con perspectiva de género II" udako ikastaroa.




"12 hilabete, 12 emakume-arkitekto" proiektuaren amaiera. Donostia.




Ada Byron Sariaren IX. edizioko banaketa-ekitaldia.




"Emakumeak eta Komunikabideak" VIII. Jardunaldiak, UPV/EHU.



“Matxismoaren sarean” filmaren aurrestreinaldia.



“Latsariak” dokumentalaren estrenaldia.



Korrikarekin lankidetza.

# 2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Berdintasunerako politika publikoak sustatzea da Emakunderen jarduketa-eremu garrantzitsuenetako bat. Berdintasunaren arloko lege-esparrua arautzeak eta berdintasunerako plan orokorraren bidez estrategia komun bat definitzeak, erakundearteko koordinazio sendoarekin batera, EAEko berdintasunerako programak eta esku-hartzeak modu antolatu eta koherentean hedatzea errazten du.

Dirulaguntzen, hitzarmenen eta lankidetza-proiektuen bidez berdintasuna sustatzea, eta, horretarako, baliabideak eta adituen aholkularitza baliatzea, estrategikoki lagungarriak dira berdintasun-politikak garatzeko. Bide horretan, egindako jarduketen jarraipena eta ebaluazioa egitea ezinbestekoa da kontuak emateko eta etengabe hobetu ahal izateko.

Emakundek, gainera, EAE barruan zein kanpoan erreferente diren instituzioekin eta entitateekin lan egiten du, aliantzak sortzeko eta, aldi berean, berdintasuna maila guztietan sustatzen laguntzeko.

## 2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea

Martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko 1/2022 Legea onartu zuen. Lege-aldaketa horrek Eusko Jaurlaritzaren legealdiko konpromiso bati zein Legebiltzarreko talde politiko guztien eskariei erantzuten die, eta, batez ere, EAEn emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean, berdintasun-politikak, prebentzioa eta instituzioen erantzuna hobetu eta indartu beharrari, kontuan izanik 4/2005 Legearen lehen bertsioa onetsi zenetik 15 urte baino gehiago igaro direla. Erreforma horrekin, hain zuzen ere, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako politika eta itun handi bat lortu nahi dira, hura indartzeko eta araudiaren eta gizartearen testuinguru berriaren ondoriozko behar berrietara egokitzeko.

2022an, lege-erreforma jendaurrean aurkezteko, aurrez aurreko eta streaming bidezko hiru saio egin ditugu hiru lurralde historikoetako hiriburuetan, baita beste foro batzuetan aurrez aurreko beste 3 aurkezpen ere. Emakunderen webgunean, bideoak eta lege-erreformaren ondoriozko aldaketa nagusiak jasotzen dituen dokumentu bat eskuratu daitezke.

Era berean, legearen agindu berriak modu koherente eta ordenatuan aplikatzea bultzatzeko, Sailarteko Batzordearen eta Erakundearteko Batzordearen esparruan, Emakundek 23 txosten egin ditu Jaurlaritzako




Legearen erreformaren aurkezpen publikoa.

sailentzat eta inplikatutako gainerako instituzio publikoentzat, horietako bakoitzak bete behar dituen agindu berriak identifikatuta. Gainera, bakoitzari etorkizunean agindu horiek aplikatzeko egingo dituen ekintzei buruzko informazioa emateko eskatu diogu.

Halaber, legearen testu bategina lantzen hasi gara eta, horrekin batera, legea garatzeko oinarrizko dokumentuak, honako arlo hauei lotuak: kontratazio publikoa, dirulaguntzak, prestakuntza, plan estrategiko eta sektorialak eta Berdintasunaren Behatokia.

## 2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

Berdintasunerako Legearen aldaketa onetsi ondoren, eta lege horrek ezarritako helburu eta irizpideen arabera, 2022ko apirilean abiatu zen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Plana egiteko prozesua.

2022ko apirilean hasitako barne-hausnarketako lehen fasean, planaren funtsezko elementuak definitu ziren, eta, lehenik eta behin, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluarekin kontrastatu ziren. Aurretiazko lan horren emaitza gisa, eta prozesuaren bigarren fasean, planaren oinarrizko dokumentua prestatu zen. Dokumentu horrek egituraren eta edukien hasierako proposamen bat zehazten du, maila teknikoan eta sozialean kontrastatu dena. Horretarako, 3 lan-saio egin dira Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundietan eta EAEko udaletan lan egiten duten berdintasun-teknikariekin, bai eta Emakunderen Aholku Batzordeko emakume-elkarteetako ordezkariekin ere. Plana egiteko prozesuak 2023an jarraituko du, onetsi arte.

Bestalde, VII. Planaren garapen-maila ezagutzeko, jarraipena egiten da urtero aplikazio informatiko baten bidez, eta horrek informazio telematikoa biltzeko bidea errazten die instituzioei. 2021ean egindako jarduerei buruzko informazioa bildu da 2022an. Eta 124 entitatek emandako informazioan oinarrituta, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren Ebaluazioa egin da.

## 2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana

EAEn soldata-arrakala murrizteko estrategia eta 2021-2025 aldirako ekintza-plan operatibo berria, 2022an Emakundek gidatua, XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren konpromisoen artean kokatzen dira. Bertan, bereziki nabarmentzen da soldata-diskriminazioari aurre egiteko eta lan-arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bultzatzeko konpromisoa, baita ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko neurri ekonomiko eta sozialak bultzatzea ere, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.

Estrategia-plan operatiboen bidez ezartzeko, sailekin koordinatuta lan egiten da, sailarteko mahai baten bidez. Era berean, Emakundek ekintza-plan operatiborako konpromisoak eta jarduketak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzen ditu.

Zehazki, 2022an honako ekintza hauek garatu dira:

| EKINTZAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Elkarrizketa Sozialaren Mahaiarekin elkarlanean aritzea | - Emakundeko zuzendariak otsailaren 15ean eta azaroaren 22an deitutako Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren bileretan parte hartu zuen.<br>- Zuzendaria Genero Berdintasunari buruzko Lantaldearen bileretako buru izan da. Lantalde hori sindikatuetako, enpresa-erakundeetako eta Eusko Jaurlaritzako sailetako ordezkariekin sortu zen, LHKren laguntzaz. Honako alderdi hauek sustatzen dihardu: kontziliazio ardurakidea, enpresetako berdintasun-planak, genero-berdintasuna negoziazio kolektiboan, eta soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa garatzea eta hari ekarpenak eta jarraipena egitea. Talde horrek 2 bilera egin ditu.<br>- Genero-lantaldeak eskatuta, «Negoziazio kolektiboak emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eragina, gizarte-eragileen ikuspegitik: oztopoak eta proposamenak» gaiari buruzko lan kuantitatibo bat egitea kontratatu zen. Lan horren emaitzak lantalde horretako kideekin partekatu ziren. |
| Soldata-berdintasunaren aldeko eguneko prentsa-oharra | Emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunaren aldeko egunaren bezperan, prentsa-ohar bat zabaldu da, gogorarazteko soldata-diskriminazioa dela gaur egun emakumeen eta gizonen arteko parekotasun-eza eragiten eta betikotzen ari den faktoreetako bat. |
| Gizonduz eta Nahiko programak garatzea | **GIZONDUZ:** Gizonen eta mutikoen artean zaintzaren eta etxeko lanetako ardurakidetasunaren etika-praktika sustatu da.<br>**NAHIKO:** Berdintasunean oinarritzen den elkarbizitza landu da, balioetan oinarritzen den hezkuntzaren bidez, giza eskubideak eta emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko genero-rolen analisi kritikoa abiapuntu izanik. |
| Enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntza | - Enpresetan soldata-arrakala murrizteko lan egiten jarraitu dugu, eta, horretarako, emakumeen berdintasunerako planak orokortzeko lanak babestu ditugu.<br>- Helburu horretara bideratutako dirulaguntza-lerroaren zuzkidura ekonomikoari eutsi zaio. |
| BAI SAREAREN materialak eta jardunaldia egitea | Ordainsari-berdintasuneko taldeak eta sareko eragileek diseinatu dituzten produktuak garatu dira:<br>- Arrakalan eragina duten faktoreei buruzko infografia.<br>- Soldataren inguruko autopertzepzioaren galdetegia.<br>- Ahalduntze digitalari buruzko infografia.<br>- Eta aldaketarekiko erresistentzien II. simulakroa, berdintasun-planen negoziazio-batzordeak gaitzeko. |



Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren bilera.




Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Genero Berdintasuneko Taldearen bilera.

## 2.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzeko organoa da sailarteko batzordea. Emakunderi atxikita dago; batzordeburua Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeburuordeak, berriz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Emakundeko zuzendaria dira. Erakundeko idazkari nagusiak idazkari-lanak egiten ditu, eta, horrez gain, honako hauek hartzen dute parte batzordekide gisa: Lehendakaritzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburuorde batek, eta, 2022tik, berdintasunerako administrazio-unitateak formalki sortu dituzten erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko zuzendari batek.




Sailarteko Batzordea.

2022ko uztailaren 22an egin du ohiko bilkura, eta gai hauek landu ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan Eusko Jaurlaritzak 2020an gauzatutako jardueraren jarraipenari buruzko txostena aurkeztea.
- Sailen eta, hala badagokio, haien erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen legealdiko berdintasun-planak entregatzea eta aurkeztea.
- 4/2005 Legearen aldaketari eta hedapenari buruzko informazioa.
- Politikariak prestatzeko proposamena aurkeztea.

Batzordeak Sailarteko Talde Tekniko bat dauka, batzordekideei babesa eta aholku teknikoa emateko. Emakundek Sailarteko Talde Teknikoa bultzatu eta koordinatzen du, eta zeregin horrekin uztartzen du beste bide batzuen bitartez ere Jaurlaritzako sailei, erakunde autonomoei eta erakunde publikoei eskaintzen dien aholkularitza eta lankidetza.

**Sailarteko Talde Teknikoa**

2022an, Sailarteko Talde Teknikoa 4 aldiz bildu da, urteko lan-plana adosteko eta gai hauei buruz hitz egiteko edo informazioa emateko:

- Taldearen beraren plangintza 2022-2023 aldirako.
- Sailetako langileak prestatzeko estrategia partekatu bat lantzea.
- 4/2005 Legearen erreformak dakartzan berrikuntzak aztertzea eta jorratzea.
- Genero-ikuspegia txertatzea plan sektorialetan eta estrategikoetan.
- Sailarteko Batzordearen bileran jorratutako gaien berri ematea.

## 2.5. Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak

Sailarteko Batzordearen esparruan eta Sailarteko Talde Teknikoan egiten den lanaz gain, Emakundek aldebiko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakundeekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2022. urtean, kolaborazio hauek nabarmendu behar dira:

| ENTITATEAK | PROIEKTUAK |
|---|---|
| Lehendakaritza Saila | Euskadi Basque Country 2030 Estrategia garatzen eta ezartzen laguntzea. |
| Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila | - Familia eta Haurren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea Haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia (2022-2025) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeei buruzko Legearen Aurreproiektua prestatzeko prozesuan.<br>- Estatistika-organoarekin lankidetzan aritzea, emakumeen kontrako indarkeriaren irismenari buruzko inkesta bat egiteko.<br>- Gazteplanaren Sailarteko Batzordean (Gazteria Zuzendaritza) parte hartzea Gazte Plana garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Emakundek gazteei zuzendutako berariazko ekintzak txertatuz.<br>- Familiaren Euskal Kontseiluan parte hartzea.<br>- Adinekoen Kontseilu Sektorialean parte hartzea.<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan parte hartzea.<br>- Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren Osoko Bilkuran parte hartzea.<br>- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzea.<br>- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzea. |
| GOGORA - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua | Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzea. |

| ENTITATEAK | PROIEKTUAK |
|---|---|
| Segurtasun Saila | Ertzaintzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen arteko polizia-koordinazioaren proiektuaren jarraipen-taldean parte hartzea. |
| Lan eta Enplegu Saila | Elkarlana, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko eta EAEko enpresetan sexu-bereizkeriako egoerak prebenitzeko edo zuzentzeko hitzarmenaren esparruan. |
| Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | Koordinazio- eta plangintza-lanak, segurtasun, higiene, ingurumen eta lan-osasunaren arloetan genero-ikuspuntutik gauzatzen diren prestakuntza-, informazio-, dibulgazio- eta aholkularitza-jarduketa bateratuen hitzarmenen esparruan. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa publiko aurreratuaren eredua garatu eta ezartzeko elkarlanean aritzea, Euskalitekin batera. |
| IVAP | Lankidetza eta koordinazioa berdintasunean oinarritutako zeharkako prestakuntzaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. |
| Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila | Emakume Nekazarien Estatutuaren jarraipena egiteko batzordean parte hartzea. |
| IHOBE | EAEko klima-aldaketari buruzko gida genero-ikuspegitik egiteko prozesuan elkarlanean aritzea. |
| Eustat - Euskal Estatistika Erakundea | Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartzea. |

| ENTITATEAK | PROIEKTUAK |
|---|---|
| Hezkuntza Saila | Hezkidetza ezartzeko elkarlanean aritzea, EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza Planaren Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartuz. Horien jarduketen artean honako hauek sartu dira:<br>• Nahiko programa ezartzea.<br>• Interesa duten ikastetxeei Beldur Barik eta Gizonduz ekimenetako material eta unitate didaktikoak eskaintzea Hezkidetzagunean.<br>• EAEko ikastetxeetako berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa egitea, EAEko ikastetxeetako berdintasunaren errealitatea ezagutzeko. |
| Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila | - Etxebizitzaren aldeko itun sozialaren (2022-2036) bileretan parte hartzea.<br>- Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan Generoaren Araberako Inpaktua Ebaluatzeko Gida osatzeko elkarlanean aritzea. |
| Osasun Saila | - Zuzendaritza Batzordearen eta osasuneko batzorde teknikoaren bitartez, politika guztietan elkarlanean aritzea, eta Emakundek arlo horretan egindako jarduera guztien txostena aurkeztea.<br>- Nahasmendu mentala duten pertsonen estigmari heltzeko erakundearteko mahaian parte hartzea. |
| Osakidetza | Emakumeen genitalen mutilazioaren arloan Osakidetzarekin elkarlanean aritzea, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin ere. |
| Kultura eta Hizkuntza Politika Saila | - Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022) garatu eta ezartzeko elkarlanean aritzea.<br>- Euskararen Agenda Estrategikoaren Jarraipen Batzordean parte hartzea.<br>- Euskararen Aholku Batzordearen Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezian parte hartzea.<br>- 2022ko Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldira joatea.<br>- Euskararen Agenda Estrategikoaren Jarraipen Batzordean parte hartzea.<br>- Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrean parte hartzea. |



Euskaraldia.

## 2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa

Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa da genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarrizko neurrietako bat.

Sailek genero-inpaktuari buruzko txostenak zuzen egiten dituztela egiaztatzeari eta hobekuntza-proposamenak emateari ekin zion Emakundek 2007an; hala, 2022an, Emakundek 87 espediente jaso eta aztertu ditu. Hurrengo taulan, urtez urte izandako bilakaera ageri da.

Genero-inpaktuari buruzko txostenak egiteko gidaren osagarri, Emakundek gaikako 18 gida ditu, txosten horiek egiteko beharrezkoa den informazioa ematen dutenak. Guztira, 4 gida hauek eguneratu dira 2022an:

1. Justizia.
2. Kultura.
3. Gizarte-bazterketa eta txirotasuna.
4. Lurralde-plangintza eta hirigintza.

**2006-2022 DATUAK**

| | Legeak | Dekretuak | Aginduak | Ebazpenak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| 2007 | 17 | 57 | 25 | 1 | 100 |
| 2008 | 19 | 75 | 81 | 4 | 179 |
| 2009 | 4 | 66 | 45 | 5 | 120 |
| 2010 | 14 | 55 | 51 | 8 | 128 |
| 2011 | 27 | 71 | 47 | 4 | 149 |
| 2012 | 6 | 106 | 39 | 3 | 154 |
| 2013 | 6 | 43 | 18 | 1 | 68 |
| 2014 | 12 | 43 | 29 | 1 | 85 |
| 2015 | 12 | 62 | 36 | 2 | 112 |
| 2016 | 2 | 32 | 34 | 2 | 70 |
| 2017 | 4 | 39 | 25 | 1 | 69 |
| 2018 | 7 | 37 | 23 | 0 | 67 |
| 2019 | 12 | 43 | 14 | 0 | 69 |
| 2020 | 3 | 26 | 24 | 1 | 54 |
| 2021 | 8 | 32 | 18 | 1 | 59 |
| 2022 | 9 | 40 | 37 | 1 | 87 |
| **Guztira** | **162** | **828** | **546** | **35** | **1.571** |

## 2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordea

Erakundearteko Batzordeari dagokio erkidego-, foru- zein toki-administrazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egiten dituzten jarduketak koordinatzea. Emakunderi atxikita dago; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua du buru 2022tik, eta EAEko administrazio publikoko hiru mailek ordezkaritza berdina dute[7].

2022an, batzordeak ohiko bilera bat egin zuen ekainaren 1ean, eta honako gai hauek izan zituzten hizpide:

- 4/2005 Legearen ebaluazioari buruzko informazioa.
- 4/2005 Legearen aldaketari buruzko informazioa.
- Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Itunaren proposamena.
- Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren inguruan erakundeen arteko kanpaina bat egiteko akordio-proposamena.
- 24 orduko krisi-arretarako zentroetarako kreditu-banaketari buruzko akordioa.
- Lantalde teknikoei buruzko informazioa.

**Lantalde teknikoak**

Erakunde arteko batzorde horren esparruan, Emakundek lantalde tekniko hauek bultzatu eta koordinatzen ditu:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, dirulaguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak**. 2022an, kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasun-klausulak nola aplikatzen diren ebaluatzen lagundu du taldeak, baita Emakundek Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan doan emandako kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko aholkularitza-zerbitzua zabaltzen ere.

- **Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzea eta erakundearteko koordinazioa hobetzea**. 2018an kalitate estandarrak definitzeko lan egin ondoren, 2019an erakundearteko koordinazioa hobetzeko lanari ekin zitzaion, bereziki toki-esparruko esku-hartzeetan. Helburua erkidego-mailan lan-esparru komun bat sortzeko oinarriak ezartzea da, non erakunde bakoitzak toki-eremuan bultzatzen dituen ekimenak guztien artean zehaztutako eta adostutako esparru bati erantzuteko jomuga izango baitute.



Erakundearteko batzordea.

7. Urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak arautua.

2022an 14 bilera egin ziren, eta beste lan-fase bati ekin zitzaion, tokiko berdintasunerako administrazio-unitateen egiturazko finantzaketarako negoziazio-estrategia bat ezartzeko. Aldi berean, lantalde teknikoak berdintasuneko lan teknikorako eta politikorako dauden espazioei buruzko hausnarketa bateratua egiten jarraitzen du, koordinazio-kanalak areagotu eta horiek berrantolatze aldera.

- **Berdintasuna Europako inbertsioko eta egiturako funtsetan**. 2020an, 2020-2023 aldirako onartutako planaren ezarpenean aurrera egin da, EIE funtsen jarduketan berdintasuneko administrazio-gaitasuna ezartzeko, baita esku hartzen duten talde eta eragileetan ere. Horretarako, 2021ean sortutako 7 talde eragileekin lan egiten jarraitu du 2022an —funts eta administrazioaren maila bakoitzeko bana dago—, baita hiru esperientzia piloturekin ere (12 bilera guztira). Talde eragileekin egindako lanaren oinarria programazio-aldi berrirako programetan genero-ikuspegia txertatzea izan da.

Bestalde, EAEko udalentzako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana egin da.

## 2.8. Lankidetza-proiektuak EUDELekin

2005. urtetik, EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak eta Emakundek lankidetza-hitzarmenak sinatu dituzte, toki-mailan berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko, baita emakumeen kontrako indarkeria mota oro prebenitzeko eta ezabatzeko ere.

Hitzarmen horiek urteetan zehar garatzen ari diren hainbat ekimenetan gauzatzen dira. Jarraian, 2022an ekimen horien esparruan egindako jarduketen memoria jasotzen da.

**BERDINSAREA - BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKADIKO UDALEN SAREA**: sare hori Emakunderen ekimenez sortu zen, eta 2005ean EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartearekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren bidez jarri zen abian.

Sareak honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariek osatzen dute, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, sarearen jarduteko gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatzen dute, baita sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen diren teknikariek eta Emakundeko teknikari batek ere.

Hauek izan dira, zehazki, 2022an Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarearen Jarraipen Batzordearen, Osoko Bilkuraren eta Batzar Teknikoaren bileretan parte hartzea eta dagozkien erabakien jarraipena egitea.
- Talde eta proiektu hauetan jardun du:

| JARDUKETAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Berdinlan | Honako batzorde hauen lanarekin jarraitu da:<br>- Udalak indarkeriaren aurrean erantzuteko batzordea: emakumeen kontrako indarkeria matxistaren toki-mailako prebentzioari buruzko dokumentu bat garatzen jarraitu da.<br>- Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari buruzko batzordea: udal-erabakiguneetan genero-ikuspegia txertatzeko lan egin da. Zeregin nagusia arduradun politikoentzako eta/edo berdintasun-teknikarientzako tresna bat garatzea izan da. Tresna horren bidez, zenbakizko puntuazioaren bidez identifikatu ahal izango da udal bakoitzeko berdintasun-politiketan eskatzen diren kalitate-estandarren betetze-maila.<br>- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasuna sustatzeko batzordea: aurrerago azalduko den bezala, udalerri txikietako kalitate-estandarrei buruzko gida lantzen jarraitu da, eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasun-politikak antolatzeko laguntza- eta aholkularitza-lana egin da. |
| Berdintruke | Hiru saio tematiko egin dira:<br>- «Emakume zaharrei zuzendutako tokiko berdintasun-politikak» (Barakaldo).<br>- «Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta eta koordinazioa udaltzainen eskutik» (Hernani).<br>- «Berdintasun-klausulak udal-kontratuetan» (Laudio). |
| Webinarra | Egindako mintegiak:<br>- «Indarkeria matxistako egoeretan esku hartzea. Gizarte-zerbitzuetarako eta tokiko beste zerbitzu espezializatuetarako gakoak».<br>- «Sexu-indarkeria begirada feministatik». |

| JARDUKETAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Atxikimenduak eta harrera-planak | Guardiako udalerria Berdinsareari atxikitzea kudeatu da. |
| Informazio-buletina | 2022ko 3 informazio-buletin diseinatu eta egin dira, Berdinsareak garatutako jarduerak eta beste albiste interesgarri batzuk zabaltzeko. |




**Berdinsarearen osoko bilkura.**

**BIZTANLE GUTXIKO UDALERRIEI LAGUNTZEA, BERDINTASUN-POLITIKAK GARA DITZATEN**: Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere biztanle askoko udalerrietan. Hala ere, udalerri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik —besteak beste, langileak kontratatzea, berdintasun-planak egitea eta berdintasun-politiketarako aurrekontua bideratzea—.

Horregatik, 2011tik Emakundek eta EUDELek lankidetza-hitzarmenak sinatu dituzte, biztanle gutxiko udalek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikak martxan jar ditzaten, Berdinsarearekin koherentea izango den estrategiarekin bat etorriz eta epe ertainean sare horretan sartu ahal izateko beharrezko diren baldintzak sortzen saiatzeko.

2018tik, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako eta hainbat udalerri txiki biltzen dituzten kuadrilla eta/edo mankomunitateetako teknikariak elkartzen dituen batzorde tekniko bat dago.

2022an, udalerri txikietan berdintasun-estrategia egituratzeko gidaren edukiak garatzen jarraitu du batzordeak, 2020an hasitako lanei segida emanez. Gidak elementu teorikoak zein praktikoak biltzen ditu, EAEko udalerri txikiei genero-mainstreaminga txertatzen laguntzeko, berdintasunerako politika publikoen kalitate-estandarrak kontuan hartuta.

Gainera, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasun-politikak antolatzeko laguntza eta aholkularitza eskaini da. Kontsulta asko izan dira tokiko gobernuek Indarkeriaren aurkako estatu-itunaren funtsak erabiltzeaz, eta, esparru horretan, dirulaguntzak taldekatzea eta programak partekatzea gomendatu da, lurralde-irismen eta eragin handiagoa izan dezaten.

**VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA**: Virginia Woolf Basqueskolaren 2022ko ekintza-planean, hamargarren urteurrenaren ospakizuna nabarmendu da. Prestakuntza-eskola gisa hasi zuen ibilbidea, eta 2017an Basqueskola Sarea sortu zen. Sarearen egiturak talde eragile baten eta hainbat lan-batzorderen bidez modu antolatuan lan egiteko aukera eman du.

Horrez gain, Basqueskolaren jarduna honako hauetan oinarritu da 2022an:




Basqueskolaren X. urteurrena.

| JARDUKETAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Basqueskola Sarea eta II Topaketa Basqueskola Sarea | • 26 bilera<br>• Basqueskola Sarearen beste topaketa bat antolatu da. Topaketari amaiera emateko, aho batez onartu zen Argomanizeko Adierazpena, tokiko politikan emakumeen kontrako indarkeria eta jazarpen sexistaren aurkakoa. |
| Basqueskola jardunaldia: «Zaintza ardurakideen tokiko eredurantz». 10. urteurrenaren ospakizuna | • «Basqueskola 10 Urtez» deituriko bideoa prestatu zen, eta bertan, emakume hautetsien ahotsen bidez, Basqueskolak etorkizunera begira proiektatzen dituen estrategiak deskribatu ziren.<br>• 2022ko Basqueskola jardunaldia. Ponentzia bat egin zen, mahai-inguru batekin batera, «ikuspegi ardurakidea duten zaintzak» gaia ardatz hartuta. |
| Generation Equality 2022 lan-prozesuaren amaiera | • 2022an amaitu zuen Basqueskolak 2021ean Generation Equality proiektuan hasitako lana, Emakundek bultzatua eta NBE Emakumeak erakundeak diseinatua.<br>• EAEko tokiko politikan emakumeen parte-hartzearen eremuan konpromiso eraldatzaileak ezartzeko, «mugimenduak eta lidergo feministak» ardatza hartu zen oinarri. |
| Prestakuntza-arloko eskaintza kudeatzea 2022 | • Tailer hauek egin dira:<br>- «Genero-ikuspegidun komunikazioa emakume politikarientzat».<br>- «Hizkera ez-sexista eta inklusiboa».<br>- «Menderakuntza eta pertsonen arteko gatazkak politikan».<br>• Prestakuntza-saioak «BasqueAdituak, berdinen arteko ikaskuntza» esparruan:<br>- «Emakumeen memoria historikoa berreskuratzea».<br>- «Mugimenduak eta lidergo feministak: Basqueskolako konpromisoak».<br>- «Herriko jai berdinzaleak».<br>- «EAEko tokiko politikan emakumeen kontrako indarkeriari buruzko hurbilketa».<br>• «Basqueskola Ibiltaria» proiektuaren barruan saio bat egin da Zallan. |
| Komunikazio- eta hedapen-estrategiarekin jarraitzea: WEBaren eta sare sozialen garapena | • Bere webgunean eta buletin digitalean ardaztu da, baita edukiak Facebook eta Twitter sare sozialetan zabaltzean ere.<br>• Buletin elektroniko bat bidaltzen jarraitu da. |
| Emakume hautetsi guztiei emateko moduko materiala sortzeko kudeaketak | Basqueskolari buruzko informazio dinamikorako esteka duen QR bat barne hartzen duten koadernoak diseinatu eta eskuratu dira. Material horiek emakume hautetsi berriei emango zaizkie 2023rako aurreikusitako harrera-jardunaldietan. |

## 2.9. Dirulaguntzak, udalerri, kuadrilla eta mankomunitateentzat

Dirulaguntza-deialdia da Emakundek udalerriei laguntza teknikoa emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Toki-erakundeei ematen zaizkie dirulaguntza horiek, emakumeen eta gizonen egoeraren udalerrian udalerriko diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAErako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz.

2022ko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 500.000 eurokoa izan da, eta 44 proiektu diruz lagundu dira. Aipatzekoa da dirulaguntzak jaso dituzten proiektu horiek 5.000 biztanletik gorako 26 udalerriri dagozkiela, 5.000 biztanletik beherako 14 udalerriri eta 5.000 biztanletik beherako 16 udalerrik osatutako 4 mankomunitate edo kuadrillari[8].

## 2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza

4/2005 Legearen 15.4 artikuluak ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru- eta toki-administrazioen berdintasun-planei buruzko txostenak egin behar ditu Emakundek, txosten horietan adierazteko ea planen edukiak Gobernuaren Plan Orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezen: erakunde bakoitzaren berezko beharrizanen diagnostikoan oinarrituta egotea; alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea; eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, sailetako 13 planen, foru-administrazioetako 2ren eta toki-erakundeetan berdintasuna sustatzeko 15 planen gaineko txostenak egin dira. Hurrengo taulan datoz zehaztuta.

8. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 1. eranskina.

| Lehen Planak | Bigarren Planak | Irugarren Planak | Laugarren Planak | Bosgarren Planak |
|---|---|---|---|---|
| Getariako I. Berdintasun Plana (2023-2026) | Orioko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2022-2025) | Bergarako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2022-2025) | Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2023-2027) | Amurrioko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2022-2025) |
| | Zaratamoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2022-2026) | Durangoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2022-2027) | Mallabiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2022-2025) | Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana (2022-2026) |
| | | Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2021-2025) | Ondarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2022-2025) | Vitoria-Gasteizko Genero-Berdintasunerako V. Plana (2023-2030) |
| | | GUFEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2022-2025) | Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2022-2027) | |
| | | | Zumaiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2023-2026) | |

# 3. ESTATU-MAILAKO ELKARLANA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Egungo testuinguru globalean, Emakundek aldaketa-eragile aktibo eta erreferentziazkoa izan nahi du emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean, bai EAEn bai EAEtik kanpo. Horretarako, gero eta indar handiagoz dihardu Estatuko beste administrazio batzuekin elkarlanean, baita nazioarteko erakundeekin elkarlanean ere, 2019an onartutako nazioartekotze-planaren eta Euskadi-Basque Country 2025 Estrategiaren esparruan.

Aliantzak ezartzeak eta elkarlanerako estrategiak sortzeak aukera ezin hobea ematen dio Emakunderi, ezagutza eta baliabideak erakarri eta trukatzeko eta EAE nazioarteko ekintzan nabarmen kokatzeko, garapen jasangarriko nazioarteko agendaren helburu globala betetze aldera: sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzea. Hori guztia, mundu globalizatu batean emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren arazo unibertsalari aurre egiteko funtsezko bide gisa.



Berdintasunerako arloko batzordea, Madril.

## 3.1. Estatuko berdintasun-arloko erakundeekiko lankidetza-ildoak

Berdintasun Ministerioarekin egindako lan-esparruan, lankidetza-bideak honako hauek dira:

**BERDINTASUNERAKO ARLOKO BILTZARRA:** Berdintasunerako Arloko Biltzarra Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek emakume eta gizonen berdintasun-politikaren inguruan lankidetzan jarduteko organoa da. Emakundek osoko bilkurarako eta batzorderako deitutako bileretan parte hartu du:

- OSOKO BILKURA: Emakundeko zuzendariak otsailaren 24an, maiatzaren 27an eta azaroaren 15ean deitutako osoko bilkuretan parte hartu du. Bilera horietan Espainiako gobernua dago ordezkatuta Berdintasun ministroaren eta bere taldearen bidez, baita estatuko autonomia-erkidego guztiak ere.

- BERDINTASUNERAKO ARLOKO BATZORDEA: era berean, batzordearen —Berdintasunerako Arloko Biltzarraren lan- eta laguntza-organo orokorra da— 7 bileratan parte hartu du, urtarrilaren 19an, otsailaren 4an, martxoaren 31n, apirilaren 22an, maiatzaren 17an, uztailaren 15ean eta azaroaren 15ean.

- BERDINTASUNAREN ETA HAUR ETA NERABEEN ARLOKO EZOHIKO KONFERENTZIA SEKTORIALA: maiatzaren 5ean, Berdintasunaren eta Haur eta Nerabeen Arloko Ezohiko Konferentzia Sektorialean parte hartu zen. Gai-zerrendako puntu bakarra Haurren Babes-sistemako Haur eta Nerabeen Sexu Esplotazioaren aurkako Ekintza Plana onestea zen, apirilaren 22an aurkeztua.

**GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZA:** Emakundeko zuzendariak Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak deitutako bilera hauetan parte hartu du:

- BILERAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEKIN: 3 lan-bileratan hartu da parte (urtarrilaren 14an, apirilaren 29an eta urriaren 4an).

- GAIKUNTZA-TITULUARI BURUZKO LANTALDEA: 3 bileratan hartu da parte (ekainaren 7an, uztailaren 19an eta irailaren 7an). Talde horrek genero-indarkeriaren biktima izaera egiaztatzeko sistemak abian jartzea ahalbidetuko duten oinarrizko prozedurak jorratzen ditu.

- GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO ESTATU-ITUNAREN LANTALDEA: 2 bileratan hartu da parte (ekainaren 7an eta uztailaren 19an). Talde hori Genero Indarkeriaren aurkako estatu-itunari jarraipena emateko garatu behar diren ekintzak koordinatzeko sortu zen.

- KRISI-ZENTROEN SORRERA: aldebiko 3 bilera egin dira hiru foru-aldundietako ordezkariekin eta Emakunderekin (uztailaren 18an, irailaren 29an eta urriaren 24an), EAEko krisi-zentroen sorreraren gauzatze-mailaren jarraipena egite aldera.

- INDARKERIA MATXISTEI AURRE EGITEKO ESTATU-ESTRATEGIA (2022-2025): 2 bileratan hartu da parte (otsailaren 14an eta urriaren 7an), indarkeria matxistei aurre egiteko estatu-estrategia (2022-2025) diseinatzeko. Estrategia horretan, partaidetza-metodologien prozesu bat da abian administrazio publikoekin eta gizarte zibilarekin.

Halaber, urtarrilaren 21ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, Emakundeko zuzendariarekin eta Gizarte Zerbitzuen zuzendariarekin batera, topaketa bat izan zuen Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan, Espainiako Gobernuko Berdintasunerako ministroarekin, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako estatu-idazkarirekin eta ministroaren kabinetearen zuzendariordearekin, bi administrazioek sinatutako lankidetza-hitzarmena berritze aldera, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko telefono-zerbitzuetarako eta sexu-indarkeriaren biktimei arreta emateko krisi-zentroak irekitzeko. Azken horiek Europako erresilientzia- eta suspertze-funtsekin finantzatu dira.

Uztailaren 13an, Emakundeko zuzendaria berriro bildu zen Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako estatu-idazkariarekin eta Genero Indarkeriaren aurkako gobernuaren ordezkariarekin eta Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako estatu-idazkariaren Kabinetearekin.



Berdintasunerako arloko batzordea, Madril.

Bestalde, lankidetza hauek egin dira beste administrazio publiko batzuetako berdintasun-erakundeekin:

- **Bartzelonako Udala:** Eskubide Sozialen, Justizia Globalaren, Feminismoen eta LGTBI kolektiboaren zuzendariak bisita egin zuen, Gizonduz eta Nahiko programei buruzko informazioa jasotzeko. Bestalde, topaketa egin zen Gasteizko emakumeen etxeko kideekin.

## 3.2. Europaren proiektuari laguntzea

Europa-mailan honako lankidetza-jarduketa hauek egin dira:

**GENERO BERDINTASUNAREN EUROPAKO INSTITUTUA (EIGE)**
EIGEk antolatutako 2022ko Berdintasunerako Europako Foroan parte hartu dugu. Orobat, EIGErekin elkarlanean aritu gara, EIGEk egindako generoaren araberako kontratazio publikoari buruzko gida euskarara eta gaztelaniara itzultzeko. Emakundek gida egiteko prozesuan parte hartu zuen. Gida horretan nabarmentzen den jardunbide egokietako bat Eusko Jaurlaritzarena da.

**EUROPAKO BATZORDEA**
Europako Batzordeko Barne Merkatuaren, Industriaren, Ekintzailetzaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusiarekin (DG GROW) lankidetzan aritu gara, Emakundek berdintasunaren eta kontratazio publikoaren arloan egindako lana ezagutzeko duen interesari erantzuteko. #WeBuySocialEU proiektuaren esparruan, Emakundek kontratazio publiko sozialki arduratsuari buruzko webinarrean parte hartu zuen, bai eta proiektu horren esparruan zabaldutako bideo bat egiten ere.

Halaber, hiri-garapen jasangarria sustatzen duen Europako URBACT ikaskuntza- eta elkartruke-proiektuan parte hartu dugu. Emakunderen lana ezagutarazteko, maiatzean #GenderEqualCities Reboot mintegian hartu genuen parte, Vienan, eta ekainean, berriz, URBACT City Festival topaketan, Parisen. Gainera, URBACTek kontratazio publikoaren arloan eskaintzen duen online prestakuntza-ikastarorako Emakundek egindako lanari buruzko bideo bat grabatu zen.


Bilera Bartzelonako Udaleko Feminismo eta LGTBI arloko ordezkariekin.



Europako Batzordeak antolatutako kontratazio publikoari buruzko webinarra.

**EUROPAKO ITSAS ETA ARRANTZA ESKUALDEEN KONTSEILUA**

EAEren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lantaldearen liderra izaten jarraitu du. 2022an lan-tailer bat egin zen DG Regio eta EIGErekin batera. Bertan, gai hau landu zen: eskualdeek EBko genero-arloko estatistikak nola balia ditzaketen ahalik eta gehien, politikak egiteko. Era berean, martxoan, «Genero-ikuspegia klima-aldaketan: Europako eskualdeen zeregina» webinarra antolatu zen, CSW66aren esparruan ekitaldi paralelo gisa (Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 66. bilkura).

**BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEEN EUROPAKO SAREA (EQUINET)**.

«Berdintasunerako erakundeen papera berdintasunerako plangintzan» online konferentzian parte hartu du Emakundek, 2022ko maiatzean.

Bestalde, Torino Cittá per le Donnek antolatutako eta Turingo Udalak babestutako tokiko gobernuetan berdintasunerako nazioarteko jardunbide egokiei buruzko online mintegian tokiko eremuan berdintasun-politikak sustatzeko egin duen lanaren berri eman du Emakundek.




URBACT City Festival 2022 nazioarteko topaketa, Paris.




Nazioarteko jardunbide egokiei buruzko online mintegia.

## 3.3. Nazioarteko lankidetza

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, honako jarduera hauek egin dira, adierazita dauden eragileekin:

**NBE EMAKUMEAK**: EAEren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin lankidetzan, NBE EMAKUMEAK erakundearekin elkarlanean jarraitu da, Generation Equality kanpaina globalaren barruan. 2022ko martxoan, Emakunde mundu-mailako kanpainaren arduradunarekin bildu zen, EAEk 2021ean abian jarri zuen proiektua aurkezteko. Proiektu hori 2022ko ekainaren 15ean gauzatu zen, Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Ituna (2022-2026) aurkeztu zenean. Itun hori da EAEren konpromiso nagusia Generation Equality ekimen globalaren esparruan, ahalik eta eragile gehienen inplikazioaren bidez gure herrian berdintasuna lortzea bizkortzeko.

CSW66aren esparruan, Emakundek CSW66ren agenda ofizialean sartutako bi ekitaldi paralelo egin ditu: «Genero-ikuspegia klima-aldaketan: Europako eskualdeen zeregina» webinarra eta «A roadmap for a country pact for equality. Bringing different generations together to reinforce Basque Society's commitment to equality» ekitaldia.

**UNFPA**: Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globalean parte hartzen jarraitu da, finantzaketa emanez. Programaren garapenari laguntzeko, dirulaguntza izendun bat eman zaio Nazio Batuen Biztanleria Funtsari (UNFPA); izan ere, funts horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.




Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.




«Genero-ikuspegia klima-aldaketan: Europako eskualdeen zeregina» webinar.

*WE DECIDE* programa finantzatzen eta bertan parte hartzen ere jarraitu da, dirulaguntza izenduna emanez. Programa horrek desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen giza eskubideak eta gizarteratzea sustatzen ditu. Hauek dira programaren erdiguneko gaiak: sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea, desgaitasuna duten pertsonen informazioa eta hezkuntza, besteak beste, sexu- eta genero-indarkeria prebenitzeko eta jorratzeko.

**NBGP**: gainera, Nazio Batuek Latinoamerika eta Kariberako Garapenerako duten Programaren Genero Atalarekin batera lan egin dugu, Tokiko Garapen Ekonomikoan genero-ikuspegia txertatzeko estrategian (DELGEN – Desarrollo Económico Local y Género).

**EAE-REN KANPO-ORDEZKARITZAK**: aldebiko lan-agendak garatu dira Argentina-Mercosurreko ordezkaritzarekin. Horretarako, Euskal Etxeak berdintasunaren arloan prestatzeko bigarren edizioan parte hartu dute Argentinako, Txileko, Uruguaiko, Peruko, Kolonbiako eta Venezuelako Euskal Etxeek, eta Uruguaiko Emakumeen Institutuarekin hainbat bilera egin dituzte Virginia Woolf Basqueskola proiektua ezagutarazteko. 2022an, Berdintasun, Genero eta Aniztasun Ministerioko Berdintasunerako Prestakuntza eta Gaikuntzako Idazkaritzak sustatzen duen Eremu Produktiborako Berdintasun eta Inklusioko Diplomaturaren klase batean parte hartu du Emakundek. Gainera, Montevideoko Intendentziarekin eta Argentinako Buenos Aires, Córdoba eta Santa Fé probintziekin elkarlanean jarraitu dugu, berdintasunaren arloko ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.

**Txileko, Peruko eta Kolonbiako ordezkaritzekin,** Emakundek sinatutako bi lankidetza-memorandumak garatzen jarraitu da, hurrenez hurren, Familien Fundazioarekin, Txileko Presidentetzako Fundazioen Sarearekin, eta Txileko Gobernuko Emakumearen eta Genero Berdintasunaren Ministerioarekin. Halaber, 2 bilera egin dira Maipúko Udalarekin, BERDINSAREA ezagutarazteko.

**Mexikoko Ordezkaritzarekin** lanean jarraitu dugu emakumeen kontrako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko Mexikoko gobernuaren Batzorde Nazionalarekin Lankidetza Memoranduma garatzeko, baita Mexikoko Estatuko Gobernuaren gobernazioarekin ere (EDOMEX), Emakundek bultzatutako politikak eta programak ezagutzeko. Aurrez aurreko bilera bat egin zen Mexiko Hirian, 2022ko irailean. 2022ko abuztuan NAHIKO ekimena aurkeztu zitzaien Mexikoko agintariei webinar baten bidez.



“Berdintasuna kalitate-elementu gisa euskal etxeen kudeaketan” ikastaroaren bigarren edizioa.

# 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA

Emakumeek politika publikoen diseinuan parte hartzeko beharra oso onartuta eta jasota dago bai emakumeen eta gizonen berdintasunerako legean, bai berdintasunerako planetan. Zehazki, emakumeen ahalduntze soziopolitikoa eta solaskidetza funtsezko estrategia da berdintasuna eraikitzeko orduan. Horregatik guztiagatik, Emakunderen lehentasunezko lan-ildo estrategikoetako bat emakumeen sare asoziatibo eta feminista sustatzea eta indartzea da, elkarrizketetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko, berdintasun-politikak nahiz bestelako politika publikoak diseinatzeko orduan.

## 4.1. Emakunderen Aholku Batzordea

Aholku Batzordea emakumeen elkarteek parte hartzeko eta elkarrizketarako duten organoa da. 1993an hasi zen esperientzia pilotu gisa, eta 1998ko ekainaren 9an arautu zen. Ibilbide luzea izan du eta hainbat mugarri historikotan parte hartu du, EAEko berdintasun-politiken garapenean eragiteko. Batzorde horretan, lurralde osoko emakumeen elkarteak daude ordezkatuta, batzordea arautzen duen dekretuak[9] ezarritako bideak erabilita.

Gizartean, emakumeen mugimendu asoziatibo eta/edo feministetan eta, oro har, emakumeen parte-hartze soziopolitikoan gertatu diren bilakaerak eta aldaketek Aholku Batzordearen lana egokitzea eragin dute.

- **LURRALDEARTEKO BATZORDEA**: lurraldearteko 3 bilera egin dira 2022an. Koordinazio- eta adostasun-gune horretan lankidetza-lana areagotu da, proposamenak aztertu eta egiteko, eta berdintasun-politikei buruzko jarrera informatuak adosteko: prestakuntza-saioak egin dira; partaidetza-proiektuak aztertu eta baloratu dira; esparru-arau, -plan eta -dokumentuetarako ekarpenak egin dira; lurralde bakoitzeko koordinatzaileen rola indartu da, eta komunikazio-estrategia hobetu da.
- **LURRALDEKO AHOLKU AZPIBATZORDEAK**: gutxienez hilean bilera bat egin da lurralde bakoitzean. Aholku azpibatzorde bakoitzean partaidetza sendotzeko ekimenak jarri dira abian, partaidetza areagotu da eta emakumeen elkarte-mugimenduen egoera eztabaidatzeko eta aztertzeko lurralde-batzarrak bultzatu dira.
- **ELKARRIZKETARAKO BESTE GUNE INSTITUZIONAL BATZUK**: elkarrizketa-gunetik haratago, batzordearen ordezkariak izendatzen dira, beste foro instituzional batzuetan parte har dezaten. Zehazki, 2022an, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren bilkura batean, Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren Epaimahaiaren bileran eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren hiru saiotan parte hartu da.

Batzorderen lan-esparruan, ahalegin berezia egiten da lankidetza bultzatzeko, parte hartzen duten elkarteen artean sareak sortzeko eta askotariko diskriminazioak pairatzen dituzten emakumeen kolektiboak biltzen dituzten elkarteekin lan egiteko (hala nola emakume alargunak, landa-eremuko emakumeak, emakume ijitoak edo emakume migratzaileak).

**PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA**:
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Planerako proposamena elkarrekin egiten parte hartu da, II. ardatzean («emakumeen ahalduntzea») eta IV. ardatzean («emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak») oinarrituta.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurkako Herrialde Ituna sinatu du batzordeak; hala, hari atxiki zaio eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lan egiteko konpromisoa hartu du.

Ordezkari baten bidez, Emakunderen edo Eusko Jaurlaritzaren gainerako organo aholku-emaile edo sektorialetan parte hartzen jarraitu

9. Ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuak arautua.

du batzordeak: Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua, Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren Epaimahaia eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

**KOMUNIKAZIOA**:
aurreko urteetan bezala, Emakundeko Aholku Batzordearen esparruan sortutako elkarrizketa-egituretan emakumeen elkarteen komunikazioa errazteko programa ezartzen jarraitu da.

Horretarako, komunikazio-baliabide eta -euskarriak garatu dira, berriak eta/edo existitzen direnak oinarri hartuta, batzordea interes-talde desberdinekin harremanetan egotea errazte aldera.

Gainera, urteko lan-programan adostutako ekintzak abiarazten eta lan-baliabide berriak garatzen lagundu du Emakundek. Eta 2022rako komunikazio-arloko lan-programa egiteko lanean parte hartu da, lehentasunezko lan-ildoak identifikatuz.

Dauden barne-protokolo eta -prozedurak berrikusi eta hobekuntzak identifikatu dira, eguneratzeko, prozedura berri bat lantzeko eta bigarren baten hasiera diseinatzeko.

Azkenik, honako hauek nabarmendu behar dira: EGKren eta Aholku Batzordearen belaunaldien arteko elkarrizketaren emaitzen zabalkundean parte hartu izana, eta datozen 5 urteetan EAEn berdintasunerantz aurrera egiteko baterako konpromisoa hartu izana, bai eta Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Herri Itunari atxikitzeko lan-metodologia garatzen duen proiektu pilotua ikusarazi eta sozializatzen ere —batzordea proiektu horren partaide aktiboa da—.

**PRESTAKUNTZA**:
aurreko urteetan bezala, Aholku Batzordean jarraipena eman zaio elkarteetako ordezkarien prestakuntza-programari, honako arlo hauetan: berdintasuneko, generoko eta feminismoko politika publikoak eta elkarrizketa soziopolitikoa.

**LANKIDETZA**:
NBE Emakumeak buru duen «Generation Equality» nazioarteko ekimenaren esparruan Emakundek sustatutako konpromisorako lan-proposamena aztertu eta diseinatu zen. Konpromiso hori Aholku Batzordeko eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkariek osatutako lantaldearen hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesuaren emaitza da.

## 4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak

Erakundeen proiektuak eta/edo jarduerak antolatzeko laguntza ekonomikoa ematen jarraitu da, emakumeen irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioei, eta emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen laguntzea helburu eta jardun-eremu bakarra duten emakumeen fundazioei zuzendutako dirulaguntzen urteko deialdiaren bidez. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan.

2022ko deialdira aurkeztu diren 111 elkarteetatik[10] 100ek jaso dute dirulaguntza. Guztira, 124 proiektu lagundu dira diruz, eta 400.000 euro erabili dira horretarako.

10. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 2. eranskina.

## 4.3. Emakumeen elkarteentzako prestakuntza eta sentsibilizazioa

Emakumeen eta nesken ahalduntze-prozesuetan aurrera egiteko eta prozesu horietan sakontzeko, maila guztietan – pertsonala, kolektiboa, soziala, politikoa –, 2022ko ekainaren 8an, Emakundek herritar guztiei eta, bereziki, emakume-elkarteei zuzendutako jardunaldi hau antolatu du: *“Emakumeak eta zaharrak: Botere eraldatzailea eraikitzen”*

Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:

- Ikuspegi kritiko eta ahalduntzaile batetik, emakumeen zahartzaroari buruzko narratibei heltzea eta zahartzaroko nortasun kolektiboa sustatzea, estereotipo eta aurreiritzirik gabe.
- Adineko emakumeen ekarpena eta ondarea aitortzeko eta ikusgaitasuna sustatzeko aukera ematea.
- Emakumeen artean aliantzak eta belaunaldien arteko sororitatea sustatzea: ondarea vs erreleboa.
- Prozesu horiek erraztuko dituzten esperientzia eraldatzaileak identifikatzea.

5 hitzaldi, solasaldi 1 eta ondorio 1 egin ziren:

| | HIZLARIAK | IZENBURUA |
|---|---|---|
| HITZALDIAK | Anna Freixas Farre | Zaharrak gara etorkizuna. |
| | Mariqueta Vazquez Albertino | Elkarrekin zahartzea, ahizpatasuna emakumeen artean. |
| | Anabel Sanz Del Pozo | Izan nahi ditugun zaharrak. |
| | Zaida Fernández Pérez | Adineko emakumeen aztarnak: gure genealogia feminista berreskuratzea eta aitortzea. |
| | Ana Fernández Cubero | Emakumeen zaintza komunitarioak eta emakumeentzat: elkarlaneko etxebizitzen kasua |
| SOLASALDIA | Yolanda Barona Trapote<br>Maialen Olabe Aguirre | Adinari dagokionez, belaunaldien arteko aliantzak. |
| ONDORIOAK | Virginia Imaz Quijera | Klownklusioak. |



“Emakumeak eta zaharrak: Botere eraldatzailea eraikitzen” jardunaldia.

# 4.4. Elkarteekin egindako proiektuak eta lankidetza-ildoak

**EMAKUMEEN ELKARTEEEN GIDA**:
EAEko Emakumeen Elkarteen Gidan sartu behar diren eguneratzeak identifikatzen jarraitu da, batetik, elkarteei beraiei direktorio bat emateko eta, bestetik, emakumeen elkarteen jarduketa-esparruak herritar guztiei edo interesa duten erakundeei ezagutarazteko.

**ELKARTEEKIKO LANKIDETZA**:
EAEko beste elkarte batzuekin lankidetzan jarraitu dugu, eta diruz lagundu ditugu hainbat eremu sozial eta kulturaletan emakumeen eta feminismoaren bultzada, parte-hartzea eta ekarpena sustatzera eta aitortzera bideratutako proiektuak. Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:



Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia.

| | |
|---|---|
| Bertsozale Elkartea | Emakume bertsolarien partaidetza eta ahalduntzea sustatu da, prestakuntza-jardueren bidez, eta bertsolaritzan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatu da. |
| Maite Albiz, Emakumeen Dokumentazio Zentroa | Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaldu dira. |
| Zinema Ikustezinaren Nazioarteko Erakustaldia | Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKEak antolatutako «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean aritu da, Emakume Errealizadore Onenaren sariari dagokionez. |
| ARGIRI, emakumeen elkartea | Irungo herriko jaietan ospatzen den alardea —diskriminatzailea ez dena— antolatu da, emakumeek soldadu gisa parte har dezaketena. |
| Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) | Aholkularitza eta laguntza egonkorra eta etengabea eman da berdintasunaren arloan, kontseiluaren jarduera guztien funtzionamenduan eta lanketan genero-ikuspegia txertatzeko. |

# 5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA

Gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu batera eraldatzeko bidean, herritar guztiak dira Emakunderen lan-ildo garrantzitsuen hartzaile nagusiak.

Berdintasunaren helburua lortzeko, hain errotuta ditugun emakumeen eta gizonen jokabide-eredu soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu egin behar dira, eta genero-rolen esleipen soziala murriztuko duten beste batzuekin ordezkatu; zaintza-lanen behar soziala, erantzukizun partekatua eta balio sozioekonomikoa aintzatesteko, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotzeko, eta bi sexuei balio eta prestigio berdina emateko.

Ildo horretan, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen, haurren eta, oro har, gizarte osoaren sentsibilizazioa lantzea, baita gako diren eragile sozialena eta eragina duten beste erakunde batzuena ere. Helburua lortze aldera, Emakundek hainbat proiektu, programa eta kanpaina sozial bultzatzen ditu.

## 5.1. Berdintasunaren aldeko Herri Ituna

2022ko ekainaren 15ean, Iñigo Urkullu lehendakariak jendaurrean aurkeztu zuen Bilbon Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko herri-ituna, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Emakunderen bidez sustatua.

Itunaren helburua da euskal gizarte osoa inplikatzea berdintasuna lortzeko, eta NBE Emakumeak erakundearen «Generation equality» ekimen globalaren esparruan garatutako belaunaldien arteko lan-prozesu baten emaitza da, munduan berdintasuna azkarrago lortzeko. Emakundek Euskadiko errealitatera egokitu du ekimen hori, eta herrialdeko hainbat eragile sozial, politiko eta ekonomikotako 450 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute prozesuan (tokiko erakundeak, enpresak, ikastetxeak eta unibertsitateak, kirol-erakundeak, hirugarren sektoreko elkarteak, alderdi politikoak eta sindikatuak...).

Eragile horiek prozesuan hartutako konpromisoetatik, Ituna sortu da, eta hamar konpromiso ditu eremu hauekin lotuta: Justizia ekonomikoa, Emakumeen eta nesken ahalduntzea, Emakumeen aurkako indarkeria matxista, Haurrak eta nerabeak, Zaintzak, Gizonen inplikazioa, Trantsizio ekologikoa, Eraldaketa digitala, Emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak eta Gobernu ona. Itunaren bidez, EAEk berdintasunaren aldeko agenda globalari laguntzen dio, eta, aldi berean, bat egiten du berdintasunaren aldeko nazioarteko koalizio indartsu eta iraunkor batekin. Koalizio hori 2021ean eratu zen Nazio Batuetan, NBE Emakumeak erakundearen gidaritzapean, eta 2026ra arte jarraituko du.

2022an zehar, batez ere itunaren bi eremu landu dira:

- **Trantsizio Ekologikoarena (7. eremua)**. Horren inguruko 3 ekitaldi egin dira:
  1. «Genero-ikuspegia klima-aldaketan: Europako eskualdeen zeregina» ekitaldia, CSW66aren esparruan.
  2. «Klima-aldaketa eta feminismoa: oraina birpentsatu etorkizuna eraikitzeko» udako ikastaroa.
  3. «Klima-aldaketa genero-ikuspegitik, tokiko erronka» jardunaldia, Gasteizen. Gainera, lankidetza estutu da IHOBErekin, besteak beste, genero-ikuspegitik klima-aldaketari buruzko gida bat eginez.

- **Gizonen eta mutikoen inplikazioa (6. eremua)**. Gizonduz ekimenaren esparruan egiten ari den lana indartzeaz gain, «Gizonezkoak, maskulinitateak eta politika publikoak. Berdintasunarekiko konpromisoa» Nazioarteko Kongresua antolatu da.




«Klima-aldaketa genero-ikuspegitik, tokiko erronka» jardunaldia.



Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.




Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.



Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.

## 5.2. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetza-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan eskola-egutegiaren arabera lan egiten da, bi ikasturtetan.

Deialdia Hezkuntza Sailarekin batera egiten da, «EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean» planaren esparruan. 2019/2021 edizioan, 49 ikastetxetako 2.876 neskak eta 3.077 mutilek hartu dute parte, eta laguntza eta gaikuntza eman zaie. 2021/2023 edizioan, berriz, 31 ikastetxek hartu dute parte; guztira, 1.737 neskak eta 1.952 mutilek. Eta 2022ko azken edizio honetan, 13 ikastetxe gehitu dira, 54 guztira.

2022an honako jarduketa hauek egin dira:

**ONLINE HITZALDIAK**: 7 hitzaldi egin dira online:

| EGUNA | HIZLARIA ETA IZENBURUA | IZEN-EMATEAK |
|---|---|---|
| 2022/02/18 | NEREA SANCHO "Ikasleen gorputzak eta beraien garapena. Heziketa afektibo-sexuala hezkidetzaren ikuspegitik". | 162 emakume<br>7 gizon |
| 2022/03/04 | IRANTZU VARELA “Analisis y uso de las redes sociales desde el punto de vista coeducativo”. | 140 emakume<br>11 gizon |
| 2022/03/22 | JOKIN AZPIAZU CARBALLO “Ikasle mutilak eta berdintasunerako heziketa: zergatik eta zertarako, hausnarketak eta irizpideak”. | 93 emakume<br>8 gizon |
| 2022/05/17 | INES OSINAGA URIZAR “Eskoletan berdintasuna musikaren bidez lantzen”. | 89 emakume<br>5 gizon |
| 2022/05/27 | MARIA MURNAU "Educación para prevenir la violencia machista: actividades de una escuela feminista". | 139 emakume<br>7 gizon |

| EGUNA | HIZLARIA ETA IZENBURUA | IZEN-EMATEAK |
|---|---|---|
| 2022/11/07 | MIGUEL ANGEL ARCONADA “Promover en las aulas masculinidades comprometidas con la igualdad” | 162 emakume<br>13 gizon |
| 2022/11/29 | YAYO HERRERO “Escuelas ecofeministas para desarrollar la coeducación”. | 84 emakume<br>6 gizon |

**HIRUHILEKOKO MINTEGIAK**: Hiruhilekoko 20 mintegi egin dira. Lan eskerga egin dute mintegi hauek ematen jardun direnek: berariazko prestakuntza landu, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi, digitalizatutako material berriak nola erabili azaldu, eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu. Mintegietan 147 emakumezko irakaslek eta 23 gizonezko irakaslek hartu dute parte guztira.




Nerea Sanchoren hitzaldia.

**BABESA ETA JARRAIPENA**: banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.

**MATERIALEN DIGITALIZAZIOA**: programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta, horretarako, erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.




Maria Murnauren hitzaldia.




Irantzu Varelaren hitzaldia.




Miguel Angel Arconadaren hitzaldia.

## 5.3. Gizonduz ekimena

2007an sortutako Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea da gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzea. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikatutako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonak areago arduratzea etxeko lanez eta pertsonen zaintzaz.

2022an honako jarduketa hauek egin dira[11]:

**SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMA**. 2009. urtean jarri zen martxan programa hori, eta 27.603 pertsona pasa dira bertatik (16.087 gizonezko, 11.224 emakumezko, 149 ez-bitar eta erantzun ez duten 143 pertsona). Ikastaro multzo bat da: aurrez aurreko ikastaroak eta Internet bidez egitekoak; doakoak dira, eskaintza zabala eta askotarikoa dute, eta moldagarriak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira; alegia, banaka edo taldean, interes pertsonalagatik edo profesionalagatik, emakume eta gizonen berdintasunean eta horren alde nola lanean trebatu edo areago jakin nahi dutenentzat. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen kontrako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa...

2022an 536 prestakuntza-ordu eman dira aurrez aurre, eta, guztira, 1.922 pertsonak parte hartu dute. Parte-hartzaileak honela bana daitezke: 1.324 gizonezko eta 579 emakumezko, 3 ez-bitar eta erantzun ez duten 16 pertsona. Bestalde, 2022an, 223 lagunek (72 gizonek eta 151 emakumek) amaitu dute 10 orduko online sentsibilizazio-ikastaroa. Azkenik, hainbat erakunderekin lankidetzan (IVAP, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta EHU) maskulinitateei buruzko online ikastaroaren 10 edizio egin dira. Guztira, 315 pertsonek gainditu dute ikastaroa (211 emakumek eta 104 gizonek).




Gizonduz ekimena.

11. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu Gizonduz ekimenaren jarduera memoria.

**«GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA**: proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideojoko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2021ean, 20 ikastetxetan egin da prestakuntza. Ikasleentzako ikastaroetan, 1.057 gaztek hartu dute parte, guztira: 230 neska, 793 mutil, 27 ez-bitar eta erantzun ez duten 7 pertsona. Ikasleekin, 226,5 prestakuntza-ordu eman dira guztira; 115 taldetara iritsi da, eta horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko. Irakasleei 5 ikastaro eman zaizkie.

**GIZONEZKO POLITIKARIEKIN EGINDAKO LANA**. 2017an, kargu politikoak dituzten gizonei zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko. Horretarako, bi gizonezko politikarien talde sortu ziren, bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan. Prestakuntza, gogoeta eta elkartrukerako espazioak ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiguneetan parte hartzen baitute.

Ekimenari jarraipena emateko, 2021. urtearen hasieran bigarren fasea hasi zen, gizonezko kargudun politikoei zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Gida hori osatzeko, 5 lan-saio egin ziren (2 Jaurlaritzako politikariekin, 2 tokiko politikariekin eta saio bat elkarrekin), eta, guztira, 25 gizon inguruk parte hartu zuten.

Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri ziren abian, administrazio autonomikoetan, foru- eta toki-administrazioetan, Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, solasaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin eta, bestetik, «prestakuntza-topaketak» direlakoak; hau da, aldizkako online saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan. Jarraian, 2022an egindako prestakuntza-jarduerak adierazten dira. Guztira, honako alderdi hauetako 108 politikarik hartu zuten parte: EAJ, EH BILBU, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU.

| EGUNA | HIZLARIA ETA IZENBURUA |
|---|---|
| 2022/05/18 | «Berdintasunerako Euskal Legearen erreformaren aldaketa nagusiak, bereziki gizonezkoei zuzendutako neurriei dagokienez». |
| 2022/07/05 | Pilar Legarra «Denboraren erabilera eta parte-hartze politikoa baldintza berdinetan». |
| 2022/11/28 | Miquel Missé «Maskulinitateak, aniztasuna eta politika publikoak». |
| 2022/12/13 | Gary Barker «Gizonezko politikariak eta politika publikoak». |

Azpimarratzekoa da politikariekin egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance erakundeekin eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako State of the World's fathers 2021 txostenean.

**PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN ZABALKUNDEA**: gizonak berdintasunari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzera bultzatzeko, unibertsitateko master eta graduondokoen eta IVAPen ikastaro espezifikoen publizitatea egin da, Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

**BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ARLOAN ESPEZIALIZATUTAKO WEBGUNEA ADMINISTRATZEA**: Gizonduzen webgunean egitasmoaren inguruko informazio zabala dago, hainbat euskarritan, baita bestelako atalak ere: elkarrizketak (2022an 6 egin dira), dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietara loturak, etab. 2022an guztira 4.860 bisita jaso ditu Gizonduzen hasierako web orriak.

**SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA**: Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTuben, Vimeon eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldian behin eguneratu egin dira. Nabarmentzekoa da Facebooken 2022an 5.191 jarraitzaile izan genituela (% 59 gizonak), Twitterren 2.223 eta 2.100 ikustaldi YouTuben.

**NAZIOARTEKO KONGRESUA**: Gizonduz ekimenaren 15. urteurrena ospatzeko, «Gizonezkoak, maskulinitateak eta politika publikoak. Berdintasunarekiko konpromisoa» nazioarteko kongresua antolatu zen abenduaren 13, 14 eta 15ean Gasteizen, EAEn gizonei zuzendutako berdintasun-politika publikoen inguruan egindako lana ezagutarazteko eta horri buruz hausnartzeko; planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko aukera emango duten esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko, bai legegintza-mailan, bai gizarte-mailan; sektore desberdinekin zeharkako aliantzak ezartzeko eta indartzeko; etorkizunerako proposamenak egiteko, eta gizonek, bereziki gazteek, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzen aldeko konpromiso indibiduala eta kolektiboa hartzeko.

Guztira 49 hizlari, koordinatzaile eta moderatzaile bildu ziren, EAEkoak, Estatukoak eta, besteak beste, Argentina, Estatu Batuak, Mexiko, Herbehereak, Portugal, Suedia eta Uruguaikoak. 466 pertsonak eman zuten izena (% 61,5 emakumeak; % 36,4 gizonak), baina, azkenean, 125 bertaratu ziren aurrez aurre eta beste 125 online konektatu ziren.

Besteak beste, kongresuak agerian utzi du garrantzitsua dela gizonetan zaintzaren etika eta praktika orokortzea, ez bakarrik justiziaz partekatu behar den ardura gisa, bai eta indarkeria matxistaren eta menderatze-dinamiken antidoto gisa ere; izan ere, egindako azterlanen arabera, zaintzen ikasten duten eta zaintzen duten gizonak urrunago daude indarkeria erabiltzen duten eta inguruko pertsonak esplotatzen dituzten gizon izatetik. Beste «indar-ideia» bat haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lan egiteko beharra izan da, adin goiztiarrenetatik lan egitea, gizonak eta emakumeak askatasunean garatzea eragozten duten rol eta estereotipoen inertzia biziki indartsuari aurre eginez. Kongresuak gizonekin modu positiboan lan egitearen garrantzia azpimarratzeko ere




Gizonduz Nazioarteko Kongresua.

balio izan du, erantzukizunetik, baina errua egotzi gabe, entzunez eta haiengandik zer espero den esanez, eta ez hainbeste zer ez duten egin behar, eta txikitatik ikasi duten maskulinitate-ereduaren alternatibak planteatuz. Nabarmendu da, halaber, maskulinitateak ez direla gizonen gaia bakarrik, gizonena eta emakumeena baizik, eta garrantzitsua dela gizonen eta emakumeen aniztasuna eta pertsona bakoitzaren bizitzan eragina duten faktore eta baldintzatzaile guztiak kontuan hartuko dituen ikuspegi intersekzional bati jarraitzea.

**SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAKO PARTE-HARTZEA**: Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Honako hauetan, adibidez:




"Indarkeria matxistak prebenitzeko hezkidetza" jardunaldia.

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| InteRed | Martxoaren 12an, «Berdintasunezko maskulinitateak» izeneko hitzaldian parte hartu da, II. Hezkidetza topaketan. |
| Lizarrako Udala | Ekainaren 9an, berdintasun-politika publikoen 25 urteko programaren barruan, «Beste begirada batzuk» mahaian parte hartu da, Gizonduzen esperientzia partekatuz. |
| Gema-Género y Masculinidades Fundazioa, Argentinako Lazo Zuriaren Kanpainarekin batera | Uztailaren 6an, «Maskulinitateak, Prestakuntzatik Ekintza Bateratura» ikastaroan parte hartu da. |
| Kanarietako Berdintasun Institutua. | Irailaren 14an, «Politika Publikoak eta Maskulinitateak» jardunaldietan parte hartu da. |
| Miguel Hernández Unibertsitatea eta Maskulinitateen Behatokia | II. Nazioarteko Kongresuaren programaren barruan, «Maskulinitateak eta berdintasuna. Berdintasunerako eta hezkidetzarako hezkuntza» izenburupean, urriaren 21ean gaikako mahaietako batean parte hartu da, honako hitzaldi honekin: «Gazteak Berdintasunean 2.0. Maskulinitateetan, berdintasunean eta indarkeria matxistaren prebentzioan egindako lanaren esperientzia». |
| Biltzen | Azaroaren 9an, «Maskulinitate Parekideak eta Kultur Aniztasuna» jardunaldian parte hartu da. |
| Matiz elkartea | Azaroaren 24an, Bilbon antolatutako mahai-inguruan parte hartu da, «Sozializazio maskulinoa eta aitatasun ardurakideak» gaiari buruz. |

| ENTITATEA edo ERAKUNDEA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Buenos Airesko Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultatea, Argentina | Maskulinitateen eta Gizarte Aldaketaren Diplomaturan parte hartu da, honako hitzaldi honekin: «Gizonduz. Emakunde-Emakumeen euskal erakundearen ekimena, gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzeko proposamena». |
| Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea | Maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko titulu propioko irakaskuntzan jardun da. |
| Euskal Herriko Unibertsitatea eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea. | UPV/EHUk eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak elkarlanean garatu duten Generoari, maskulinitateei eta gizarte-ekintzari buruzko unibertsitatearteko espezializazio-tituluaren irakaskuntzan jardun da. |

**AHOLKULARITZA**: kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.

## 5.4. Martxoaren 8ko kanpaina

2022ko martxoaren 8ko kanpainan, hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeei eta neskei, oro har, eragiten dieten presio handiari buruzko azalpenak eskatu gizarteari, haien gorputzen nahitaezko «perfekzioari», ezarritako edertasun-kanon zorrotzari, hipersexualizazioari eta haien gorputzen kontzeptualizazioari dagokienez.

Lau neskato dira kanpainaren protagonistak, eta helburua da gizarteari erakustea garaiz gabiltzala emakumeen hurrengo belaunaldiek gorputzen eta itxura fisikoaren gaineko presio hori izan ez dezaten; izan ere, presio hori oso da mugatzailea haien bizitzetarako. Kanpainak itxaropen-mezu bat zabaldu nahi du, alegia, garaiz gabiltzala, etorkizun hobea eskaini ahal diegula eta eskaini behar diegula hurrengo belaunaldiei.

Kanpainaren goiburu nagusia galdera bat da, zeina neskatoek beraiek helarazten baitiote gizarteari, egunero bideojoko askoren, sare sozialen, modaren sektore batzuen, komunikabide batzuen edo publizitate-proposamen batzuen bidez jasotzen dituzten gorputz «perfektuen» eta hipersexualizatuen irudien bonbardaketaren aurrean. Neskatoek hau galdetzen dute: «Benetan? Hau da emakumeontzat nahi duzuena?». Eta leloa honako mezu honekin ixten da: «Garaiz gabiltza neskatoei beste etorkizun bat eskaintzeko, haien gorputzen eta itxuraren gaineko presiorik gabe».

Kanpainak otsailaren 24tik martxoaren 9ra iraun zuen eta kartelak, irratirako oharrak, bannerrak eta bideo bat sortu ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Horrez gain, kartelak bidali ziren instituzioetara, ikastetxeetara, osasun-zentroetara, elkarteetara, enpresetara, kultura-zentroetara,




Kanpainaren aurkezpena.




Martxoaren 8ko kanpainaren kartela.

liburutegietara eta abarrera. Kanpaina, martxoaren 8a aipatu gabe, irrati eta sare sozialetan mantendu zen urte osoan zehar.

## 5.5. Azaroaren 25eko kanpaina

A EAEko instituzio guztiekin adostutako kanpaina bakar baten bidez, azaroaren 25eko kanpainan, alegia, Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, gizonen eta haien paperari buruzko azalpenak eskatu ziren emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez. Kanpainak azalpenak eskatzen dizkie «Soilik baietz da baietz» ulertzen ez duten gizonei, eta gogorarazten die «ezetz esateko modu asko daudela, baina ulertzeko modu bakarra». Gizonek berek eta emakumeek galdetzen diete beste gizon batzuei: «Zer ez duzu ulertu nahi? Soilik baietz da baietz».




Azaroaren 25eko kanpainaren aurkezpena.




Azaroaren 25eko kanpainaren kartela.

Kanpaina azaroaren 15etik 30era egin zen telebistan, irratietan, egunkarietan, online hedabideetan eta sare sozialetan. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien instituzioei, ikastetxeei, osasun-zentroei, elkarteei, enpresei, kultura-zentroei, liburutegiei...

## 5.6. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen —publiko nahiz pribatuen— jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.



2021eko Emakunde Saria emanaldia.

2022. urtean, 2021eko sariak banatu zaizkie *Pikara Magazine* aldizkariari (Eme Komunikazioa elkartea), *Berria* egunkariari (Euskal Editorea SL), eta Lucia Martínez Odriozolari, hil ondoren, saria baloratzeko irizpideekin ondoen bat egiten duten hautagaiak direlako.

Horrela, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometitutako komunikazio eta kazetaritzaren alde egindako ekarpenaren aintzatespen publikoa adierazi nahi izan zuen epaimahaiak, ikuspegi feministatik eta genero-ikuspegitik kazetaritza-zereginean oinarritutako praxia sustatuta. Era berean, aintzatespen hori egunero berdintasunarekiko konpromisoa adierazten duten komunikazio-arloko beste profesionalei ere nahi izan zien hedatu epaimahaiak, baita ikuspegi feminista eta genero-ikuspegia txertatzen dituen kalitatezko kazetaritza sustatzen lan egiten duten komunikabide guztiei ere.

Bestalde, Emakunde Sariaren epaimahaiak Emakunde Saria 2022 On Giz Berdintasunaren Aldeko Elkarteari (irabazi-asmorik gabeko elkartea) ematea erabaki zuen, gizartean berdintasunaren eta deseraikuntza patriarkalaren aldeko sentsibilizazioaren, kontzientziazioaren eta prestakuntzaren bidez egiten ari diren lanagatik, bai EAEn, bai estatuan eta nazioartean, hautagaitzak berak jasotzen duen bezala.

## 5.7. Eskola-agenda

Iraileko lehen egunetan 80.000 eskola-agenda baino gehiago banatu ziren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ziklo osoko ikasleentzat. Agenden helburua da neskak eta mutilak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta errespetuan, autonomian eta aukeratzeko askatasunean oinarritutako harremanen alde, rol eta estereotipo sexistak alde batera utzita.

2022-2023 eskola-agendak berdintasunarekin eta errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Honako gai hauei lotutako mezuak dira: bizitza-proiektuak aukeratzeko askatasuna, «nesken gauzak» eta «mutilen gauzak» daudela adierazten duten estereotipoekin amaitzeko beharra, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lanak partekatuak izateko beharra, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, egoera fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzea, gorputz perfektuen tirania salatzea, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko beharra (neska edo mutil izan), nesken eta mutilen artean adiskidetasuna izateko eta haien arteko harremanetan enpatia lantzeko beharra, emakumeen jakintzak aitortzeko beharra, etab. Orobat, joan den ekainaren 15ean aurkeztu zen Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Ituneko hamar puntuak jasotzen ditu agendak; erakundeak eta herritarrak Emakunderen web-orriaren bidez atxiki daitezke itunera.




Eskola-agenda.

## 5.8. «30 emakume ahaztezin» erakusketa

«30 emakume ahaztezin» erakusketak hogeita hamar akuarela biltzen ditu. Bertan, Elena Ciordia artistak gure herriaren historiako emakumeak erretratatu ditu, hainbat diziplinatan nabarmendu direnak, hala nola idazketan, bertsotan, margolaritzan, argazkigintzan, kiroletan, musikan, fisikan, politikan, kazetaritzan, ikerketan eta irakaskuntzan. Akuarelez gain, emakume horien bizitzari buruzko informazioa ematen diguten ikus-entzunezko beste material eta elementu batzuekin osatu da erakusketa.

Historian zehar aipatuak eta omenduak izatea merezi duten beste emakume asko daudela jakinda, erakustaldiaren xedea herritarren ekarpenak jasotzeko gune izatea ere bada, emakume horiek oroitzeko. Helburu horrekin, bisitariei gonbita egiten zaie gogoratuak izatea merezi duten emakumeen izen gehiago proposatzera: edozein eremutan nabarmentzen diren emakumeak, beren herrietako eta familietako emakume erreferenteak, eta beren historia kontatzen dutenak. Ekarpen hori sare sozialetan #mujeresinolvidables #emakumeahaztezinak traola erabiliz egin daiteke.

2022an zehar, erakusketa ikusgai egon da Aguraingo Zabalarte aretoan, Gasteizko Abastos Merkatuan eta Bilboko Erriberako Merkatuan.

## 5.9. Emakunde aldizkaria

*Emakunde* aldizkarian informazioa eta elkarrizketak argitaratzen jarraitu dugu. Aldizkariko harpidedunek puntualki newsletterra jaso dute haien helbide elektronikoetan. Edukiek, bidenabar, hedapen zabala izaten dute, sare sozialen laguntzari esker. Aldizkariaren helburuetako bat da gure jendarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea, baita berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere.




“30 emakume ahaztezin” erakusketa. Bilboko Erriberako Merkatua.

# 6. BERDINTASUNA ENPRESETAN

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugarik agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen pozik handiena hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza, familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak dira enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea, arlo horretan adituak diren aholkularitza-enpresak homologatzea eta gako diren eragileekin sare eta aliantzak sortzea ere.

## 6.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza ematen die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasun-legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

901 eta 902 Errege Dekretuak[12], indarrean jarri ondoren, eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko ez ezik, plan horiek abian jartzeko eta plan horien egokitzapena egin eta Regconen erregistratu ahal izateko ere bai. Hain zuzen ere, enpresa txikien informazio-eskaerek gora egin dute, errege-dekretuak onartu ondoren, besteak beste, berdintasun-plan negoziatu bat eduki behar dutelako, soldata-auditoretza barne. Horrez gain, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurkako berariazko protokoloak aplikatzeari lotutako kontsulta kopuruak urtero egin du gora, baita esparru horretako prestakuntza-eskaeren kopuruak ere, bereziki enpresa txikienei dagokienez.

## 6.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

Berriz ere egin da enpresa eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-diagnostikoak eta -planak prestatzeko laguntza kontratatzeko. Dirulaguntza 61 enpresei eman zaie[13]; guztira 385.156,95 €.

Dirulaguntza eman zaien erakundeen artetik, 45 Bizkaikoak dira, 9 Gipuzkoakoak eta 7 Arabakoak. Jarduera-eremuari dagokionez, esan behar da 7 industria-sektorekoak direla, 54 zerbitzu-sektorekoak

12. Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua moldatzen duena; eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

13. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 3. eranskina.

(20 esku-hartze sozialekoak, 6 ingeniaritza eta teknologiaren sektorekoak, 8 hezkuntzakoak, 6 arlo sanitariokoak eta gainerako 14ak hainbat esparrutakoak). Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 2.066 emakumerentzat eta 1.691 gizonentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

## 6.3. Berdintasunerako lankidetza-erakundeak aitortzea

Gizarte- eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, eta entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko, lankidetza-erakundearen figura sortu eta arautu zen[14].

14 eskaera jaso dira 2022an, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakundearen aitorpena eman zaie jarraian adierazitako 5 erakundeei.

| AITORTUTAKO ERAKUNDEAK 2022 |
|---|
| 1. MONDRAGON LINGUA S. KOOP |
| 2. SERIKAT CONSULTORIA E INFORMATICA S.A. |
| 3. LEA ARTIBAI FUNDAZIOA |
| 4. SUSPERTU SL |
| 5. IRSEARABA, S.COOP. |

Gaur egun, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakunde gisa aitortutako 133 erakunde daude.

## 6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresei eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioaren deialdiari buruz.

Aurten 9 enpresak egin dute eskaera, eta enpresa bat homologatu da.

| HOMOLOGATUTAKO AHOLKULARITZA-ENPRESAK 2022 |
|---|
| 1. NORMAK CONSULTING ELK. TXIKIA |

Bestalde, homologatutako aholkularitza-enpresen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen betekizunak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

2022ko abenduaren 31n, Emakundek 37 aholkularitza-enpresa homologatu ditu, enpresei berdintasun-diagnostiko eta -planak egiten laguntzeko.

14. Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak arautua.

## 6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetza-erakundeen Sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakundeek osatutako sare bat da, 2018ko martxoaren 19an eratu zena formalki, Emakundek eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetza-erakunde askok bi urtez lanean jardun ondoren.

Gaur egun, Emakundek eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 69 lankidetza-erakundek osatzen dute. Erakunde horiek, konpromiso-eredua sinatuz, borondatez konpromisoa hartu dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta NBE Emakumeak erakundeak ahalduntzeari dagokionez ezarritako printzipioak aplikatzeko, betiere EAEko errealitatera egokituta.

BAI Sareak helburu hauek ditu: esperientziak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abarrak partekatzea; eta enpresen zein gizartearen errealitatea eraldatzea zein hartarako tresnak sortzea, lan-esparruan genero-arrakalak murrizteko, eta berdintasuna eta justizia soziala erakundeen balio estrategiko gisa bultzatzeko.

Eratu zenetik, bederatzi batzar egin dira. 2022ko batzarretan (ekaina eta abendua), 2023-24 plan berrirako ideiak sortzeari ekin zitzaion hainbat tresnaren bidez, eta 2022ko emaitzak aurkeztu ziren. Horrez gain, eragileen eta ordainsari-berdintasuneko taldeen produktuak aurkeztu ziren, eta hiru jardunbide hoberenen aintzatespenak eman ziren (Mariezcurrena-Zubieder, Arabako Gurutze Gorria, Goiztiri eta aipamen berezia Berria Taldeari). Guztira 20 ekintza egin dira, besteak beste, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainak, Bingo BS jolasa, 2 BS gela topaketa, BS taldeen topaketa eta abar, eta 11 tresna garatu dira, hala nola 4 infografia, soldataren inguruko autopertzepzioaren galdetegi bat, kontraargudioen I. eta II. dokumentuak, praktiken biltegia, planetarako BS neurriak, 2 Btob, 2 podcast…; horien artean, honako 5 prestakuntza-saio eta 2 umore-pilula hauek nabarmentzen dira:

| EGUNA | HIZLARIA ETA IZENBURUA |
|---|---|
| 2022/05/05 | Montserrat Boi, «Ahalduntze digitala I» (eragileen taldea). |
| 2022/05/12 | Montserrat Boi, «Ahalduntze digitala II» (eragileen taldea). |
| 2022/05/17 | Nagore Iriberri eta Laura Hospido, «Gardentasuna eta soldata-arrakala» (ordainsari-berdintasuneko taldea). |
| 2022/05/26 | Maitena Monroy, «Autodefentsa feminista». |
| 2022/06/01 | Miren Andonegi, «Aldaketa plazeretik» (eragileen taldea). |
| 2022/06/16 | Beatriz Egizabal, «Aldaketarekiko erresistentzien simulakroa».<br>Uxue Zugaza eta Mari Luz Esteban, «Desberdinkeriak, emozioak eta leku komunak» (VIII. Batzarra). |
| 2022/12/01 | Saioa Aizpurua, «Umorea lanerako tresna».<br>Edurne Aperribay eta Maitena Monroy, «Autodefentsa eta hirigintza feminista espazio seguruak sortzeko» (IX. Batzarra). |




BAI SAREAren VIII. Batzarra.

15. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 4. eranskina.




BAI SAREAren IX Batzarra.

Talde eragileaz eta komunikazio-taldeaz gain, 4 talde aktibo egon dira, zeharkakoak: ordainsari-berdintasuneko taldea, trukerako taldea eta eragileen taldea eta batzorde antolatzailea. Guztira, 36 erakundek parte hartu dute lantaldeetan, gaur egun sarea osatzen dutenen % 51k.

## 6.6. Enpresentzako prestakuntza

Lan-arloan eta enpresa-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egiteko, Emakundek enpresentzako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu 2022an, kudeaketa aurreratua eta lan-osasuna bereziki kontuan hartuta:

- 2022/05/04: «Laneko indarkeria eta jazarpena genero-ikuspegitik. Enpresetako arau-inplikazioen azterketa» jardunaldia, Lan Ikuskaritzarekin eta Osalanekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan antolatua. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
  - 190 Hitzarmena berresteko prozesua eta estatuko berdintasun-araudian duen aplikazioa ezagutaraztea.
  - Lan Ikuskaritzak genero-ikuspegi eta guzti 2022an egindako jarduketen berri ematea.

- 2022/10/22: «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (VI)» jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuaren XXVIII. Europar Astearen esparruan (Euskalitek sustatutako astea). Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
  - Enpresei berdintasunari buruzko hausnarketan eta lehiakortasunean laguntzea eta pertsonak erdigunean jartzea.
  - Pertsonen eremuko kudeaketa aurreratuan 2 berdintasun-praktika partekatzea (Ormazabal eta Bizkaiko Badia Gasa).




“Laneko indarkeria eta jazarpena genero-ikuspegitik” jardunaldia.

## 6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetza-ildoak

Enpresekin, antolaketa- eta ekoizpen-modu berri berdinzaleagoak bultzatzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gako diren beste eragile batzuekin aliantzak eta sinergiak sortzea, baita horiekin lan egiten duten instituzioekin ere. Ildo horretan, Emakunderen ustez, estrategikoa da elkarlanean bidelagun izatea bai lan-ikuskaritzaren arloan eskumena duen lan-agintaritza, bai laneko segurtasunean eta osasunean eskumena duen erakundea, baita EAEko erakundeetan kudeaketa aurreratua ezartzen eta lehiakortasuna, berrikuntza eta garapen jasangarria sustatzen diharduten erakundeak ere. Horrekin guztiarekin, berdintasunezko lan-inguruneak bultzatu nahi dira. Horretarako, honako lankidetza-hitzarmen hauek egin dira:

**LANKIDETZA-HITZARMENA LAN IKUSKARITZAREKIN**: Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna sustatzeko eta EAEko enpresetan sexuan oinarritutako bereizkeria-egoerak prebenitzeko edo zuzentzeko 2016an sinatutako hitzarmenaren esparruan, berdintasun-planen erregistroari buruzko informazioa trukatzeko eta kontsultak bideratzeko hainbat jarduketa garatzen jarraitu da, Lan Ikuskaritzaren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan. Era berean, jardunaldi bat diseinatu da Osalanekin batera, genero-ikuspegitik laneko indarkeriari eta jazarpenari buruz eta genero-enpresentzako araudi-inplikazioen azterketari buruz.

**LANKIDETZA-HITZARMENA OSALANEKIN**: 2015ean laneko segurtasun, higiene, ingurumen eta osasunaren arloan sinatutako hitzarmenaren esparruan, genero-ikuspegitik hainbat jarduketa egin dira informazioa koordinatzeko eta trukatzeko, prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko, aholkularitza eskaintzeko, dibulgazioa bultzatzeko eta kontsultak bideratzeko. Halaber, jardunaldi hori antolatu da Lan Ikuskatzailetzarekin batera, genero-ikuspegitik laneko indarkeriari eta jazarpenari buruz eta enpresentzako araudi-inplikazioen azterketari buruz. Era espezifikoan, elkarlanean aritu gara laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko tresnak sortzeko, ikuspegi prebentibo eta erreaktiboa oinarri hartuta, baita tresna horien gaineko dibulgazio- eta prestakuntza-ekintzak antolatzeko ere.

**LANKIDETZA-HITZARMENA EUSKALITEKIN**: 2017an sinatutako hitzarmenaren esparruan, hainbat jarduketa egin dira hitzarmena betetzeko. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: kudeaketako berdintasuneko jardunbide egokien bilatzailea elikatzeko enpresa-praktikak identifikatzea, eta jardunbide egoki horietako zenbait aurkeztea urriaren 26rako antolatutako jardunaldi batean.




“Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak” jardunaldia.



# 7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN

Komunikabideek eta publizitate-agentziek, eragile sozializatzaile diren aldetik, funtsezko eragina dute errealitatearen pertzepzioan. Irudi eta mezu jakin batzuk errepikatzeak balio, portaera-eredu eta bizimodu jakin batzuen onarpen akritikoa sustatzen du neurri handi batean. Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren ekoizpenean aurrera egiteko, Emakunderen lana Begira Batzordearen eta atxikitako entitateen sarearen bidez egituratzen da. Lan-ildo nagusiak honako hauek dira: azterlanak eta ohartarazpenak egitea; materialak, gidak eta tresnak diseinatzea; sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzea; kexak kudeatzea.

## 7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea

Begira 1998. urtean sortu zen Emakunderi atxikitako batzorde gisa[16]. Emakundeko idazkari nagusia buru dela, honako hauek osatzen dute batzordea: Eusko Jaurlaritzako Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailetako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariek. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonek osatzen dute batzordea.

Aholku-eta topaketa-batzordea da, eta haren zeregina da aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan sexuan oinarritutako bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Halaber, komunikabide publikoek eta publizitate-agentziek emandako edukietan kode etikoak aplikatzea sustatzen du, eta akordioak bultzatzen ditu komunikabide pribatuekin eta agentziekin.

2014-2015ean, publizitate-agentziek, komunikabideek eta genero-arloko espezialistek lankidetza-prozesu bat garatu zuten, Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak sustatua, EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexistarako Autoerregulaziorako Kode Deontologikoa lantzeko eta hari atxikitzeko. Gainera, kode hori eragingarri bihurtzen duten hainbat dekalogo ere egin dira. Dokumentu horietan, alderdi eta konpromiso etiko batzuk jasotzen dira, publizitatearen eta komunikazioaren jardun profesionalean erabilera sexistak antzemateko eta desagerrarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko. 2016an, kodea finkatzeko eta ezartzeko prozesu bat hasi zen, eta, testuinguru horretan, Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako erakundeen Begira Sarea sortu genuen.

16. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuak arautua.

Hona hemen sare horren funtzio nagusiak: zailtasunak diagnostikatzea eta horiek elkarrekin konpondu ahal izatea erraztea, lan-tresna praktikoen bidez. Esparru horretan, hainbat material sortu ziren , hala nola hauteskunde-prozesuen informazio-tratamendurako gida, dekalogoei lotutako check-listak edo haurrei zuzendutako publizitatearen tratamendu ez-sexistarako gomendioak.

2022an, jarduketa hauek egin dira: EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexistarako Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako erakundeen sarearen esparruan, atxikipenari buruzko hausnarketarekin jarraitu da, parte-hartzea eta konpromisoak hobetzeko; Kode Deontologikoa eta Dekalogoa berrikusteko eta eguneratzeko prozesua adostu da; EAEko baliabide digitalen monitorizazioari buruzko proiektuarekin jarraitu da, hobekuntzak eta adierazle berriak txertatuz; komunikazio- eta publizitate-arloko profesionalentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen proposamenak landu dira, eta horiek abian jarri nahi den prestakuntza-atarian sartuko dira.

Orobat, 2022an publizitateari eta komunikazioari buruz aurkeztutako kexen berri eman da, eta datuak aztertu dira. Halaber, urte hasieratik irekitako espedienteak berrikusi dira, egin daitezkeen ekarpenak jasotzeko.

## 7.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa

Begiraren funtzio nagusietako bat komunikazio eta publizitate ez-sexistaren arloan aholkuak ematea da. Begirak hainbat erakunde, instituzio, unibertsitate edo ikertzaileren kontsultak eta aholku-eskaerak jasotzen ditu, baita herritarren aldetik ere. 2022an, hainbat kontsultari erantzun zaie; eskari gehienen helburua izan da batzordearen zeregina ezagutzea edo genero-ikuspegian oinarritutako kazetaritzari edo publizitate ez-sexistari buruzko aholkularitza espezializatua eskatzea.

Era berean, Begirak herritarrek edota instituzioek egindako kexak jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.

2022an, 17 kexa-espediente bideratu dira:

| ESPEDIENTE KOP. | 2022 |
|---|---|
| Gomendioak | 6 |
| Emakumeen Institutuko Irudiaren Behatokira bideratutako eskariak | 10 |
| Publizitatea eteteko eskaerak | 1 |
| **GUZTIRA** | **17** |

Jasotako kexetan oinarrituta, Begirak 6 gomendio eman dizkie hainbat entitateri, oinarri hartuta Kode Deontologikoan eta emakumeen kontrako indarkeriaren publizitateari, komunikazioari eta informazio-tratamenduari buruzko dekalogoetan jasotako printzipioak. Eskumen-

arloa dela eta, 9 eskabide Emakumeen Institutuko Madrilgo Irudiaren Behatokira bideratu dira eta beste bat Nafarroako Berdintasunerako Institutura. Azkenik, nabarmendu behar da publizitatea eteteko eskaera bat bidali dela.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honakoa da, oro har: emakumea, 31 eta 40 urte artekoa, unibertsitate-ikasketak eta lanaldi osoko lanpostua dituena.

Hauek dira datuak, kexen tipologiaren arabera:

| KEXEN KOP. | 2022 |
|---|---|
| Publizitatea | 9 |
| Komunikabideak | 8 |
| **GUZTIRA** | **17** |

Kexa motaren arabera, 9 publizitatearen arloko kexak dira, eta beste 8, berriz, komunikazioaren arlokoak. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen kontrako indarkeria banalizatzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.

Herritarrek erakunde honekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez, eskabide gehienak gaztelaniaz egin dira, eta 2 euskaraz.

## 7.3. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak

Begiraren funtzio nagusien artean daude komunikazioa eta publizitatea aztertzea eta horien jarraipena egitea. Ildo horretan, lan handia egiten ari da hedabideak zein publizitate-agentziak genero-ikuspegian oinarrituta monitorizatzeko.

Zehazki, EAEko prentsa digitalean generoa monitorizatzeko proiektuarekin jarraitu dugu 2022an. 1. fasean aplikazio bat diseinatu zen beta bertsioan, baliabide digitalen informazioetan emakumeen eta gizonen presentzia kuantitatiboki aztertzeko, eta interfaze bat martxan jarri zen, baita aplikazioa zerbitzari birtual batean hedatu ere (2020).

2022an zehar, aplikazio hori hobetzen jarraitu dugu, helburu hauekin: UPV/EHUk egindako aurreko monitorizazioetan jada erabilitako adierazle berriak txertatzea, serie historikoak egin ahal izateko; lagin, iragazki eta datu-ustiapenetan desdoikuntzak araztea; aplikazioaren diseinuan eta erabilgarritasunean hobekuntzak sartzea.

# 8. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA

Emakume izate hutsagatik emakumeen kontra erabiltzen den indarkeria egungo gizarte- eta kultura-ereduan nagusi diren genero-desberdinkerien ondorioa da. Desberdinkeriatik eratorritako arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei eta haren adierazpenik larrienari —emakumeen kontrako indarkeriari— aurre egiteko, Emakundek gogor dihardu lanean berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan eta prestakuntzan bereziki, hori baita prebentziorako funtsezko tresna.

Indarkeria matxista pairatzen ari diren eta/edo gainditu duten emakumeei eta neskatoei laguntzea da Emakunderen lanaren beste lehentasunetako bat. Horretarako, genero-indarkeriaren biktimak detektatzeko, artatzeko eta erreparazioa emateko baliabideak eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren erakundeen jarduera bultzatzen eta koordinatzen du Emakundek, baita haren jarraipena egiten ere.

## 8.1. Beldur Barik programa

2009. urtean Berdinsarearen esparruan hasi zenez geroztik, Beldur Barik programa handituz eta finkatuz joan da eta, 2013. urtean, Emakundek bere gain hartu zuen programaren zuzeneko kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren aurpegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun- eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.

Erakundearteko programa bat denez, hura kudeatze aldera, jarraipena eman zaie foru-aldundiekin egindako lankidetza-hitzarmenei eta EUDELekin abiatutako koordinazioari. Era berean, koordinazio-bilerak egin dira Hezkuntza Sailarekin (Berritzegune Nagusiko hezkidetza arduraduna), Gazteria Zuzendaritzarekin (Gazteriaren Euskal Behatokia eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua), UPV/EHUrekin eta EITBrekin.

2022an, talde eragilea, alegia, programaren koordinazio-gunea, kontrasterako talde gisa eratu da, eta foru-aldundietako, EUDELeko eta Emakundeko berdintasun-teknikariek osatu dute, eta 3 koordinazio-bilera egin dira.

Beldur Barik programaren barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste, Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

**BELDUR BARIK LEHIAKETA**: Beldur Barik lehiaketaren helburua da, gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdinkeria-egoerari aurre egiteko, mutikoek eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak aitortzea, baloratzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita,

hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatutako jarrerak eta jokabideak.

Hona hemen jardunean 13 urte daramatzan programaren 2022. edizioko aldaketa nagusiak:

1. 2010-2020ko Inpaktuaren Ebaluazioan, adin gazteagoko pertsonen esku-hartzea sustatzeko beharrari buruzko gomendio bat jaso zen. Hori dela eta, parte hartzeko adin-tartea aldatu egin da: 12 eta 20 urte bitarteko gazteek parte hartu dute, eta kategoria hauek egon dira: 12-14 urte, 15-17 urte eta 18-20 urte.
2. Hausnarketa-prozesuen sorrera errazte aldera, parte hartzeko, «Prozesuaren fitxa» bete behar izan dute nahitaez. Fitxa horretan, egindako prozesua, eta ikaskuntzak eta ondorioak azaldu dituzte.

Beldur Barik lehiaketaren 2022. edizioan, 71 udalerrik, kuadrillak eta mankomunitatek aurkeztu dituzte lanak; guztira, 306 izan dira. Horietatik 225 lehiaketara onartu dira, gehienak 12 eta 14 urte bitartekoen kategorian (% 49,3); 15 eta 17 urte bitartekoen kategorian lanen % 36 aurkeztu dira, eta 18 eta 20 urte bitartekoen kategorian, berriz, lanen % 14,6. Gehienak taldean aurkeztu dira, eta % 89,7 ikastetxeek.

**TOPAKETA**: 2022. urte honetan, Topaketa aurrez aurre egin da abenduaren 2an, ostirala, Sestaoko Musika Eskolan. Streaming bidez emititu zen, eta 152 gaztek parte hartu zuten.

14 lehiaketa eta topaketa lokal antolatu dira: Aiaraldea eta Orozko, Abanto-Zierbena, Basauri, Enkarterri, Ermua, Gernika-Lumo, Iurreta, Deba, Irun, Lasarte-Oria, Pasaia eta Urola Garaia.



Beldur Barik lehiaketa.



Beldur Barik. Topaketa 2022.


Topaketa Beldur Barik.

**JAIETAKO KANPAINA**: jaietan eraso sexistak prebenitzeko Beldur Barik Jaiak 2022 kanpaina espezifikoa egin zen, eta, horren bidez, honako material hauek bidali zitzaizkien toki-erakunde guztiei, posta elektronikoz zein posta arruntez

- «Jaietan emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak sustatzeko gida».
- Gazteentzako informazio-liburuxkak: «Eraso sexistarik gabeko egunak eta gauak».
- Erasorik gabeko jaien aldeko kartelak, udalerrietan zabal zitzaten.

Aurrerapauso handiak egin dira irisgarritasun unibertsalean, bai webgunean, bai hainbat jardueratan, eta desgaitasun funtzionalaren eremuko elkarteen laguntza izan dugu.



Gidaren aurkezpena.

Indarrean dauden materialak eguneratzeaz gain (berdintasun-teknikariei eta beste udal- eta foru-eragile batzuei, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko irakasle eta eragileei eta abarri zuzenduak), material berriak prestatu dira: jaietan tokiko prozesuak sustatzeko gida, bideoak sortzeko prozesua errazteko gazteei zuzendutako azalpen-bideoak, emakumezko influencer gazte kolaboratzaileen bidez sare sozialetan eragin handiagoa izatea eta abar.

Aurtengo edizioan Izaro abeslariaren laguntza izan dugu: Libre deituriko abestia leitmotiva eta soinu banda izan da, eta bere sare sozialen bidez promozioa egin du.

## 8.2. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen, eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan, eta esku-hartze sozialeko funtsezko mekanismoa da.

Hori guztia dela eta, Emakundek, 2022. urtean, jarraitu du laguntza ekonomikoa ematen emakumeen kontrako indarkeria jarreren inguruan sentsibilizatzeko edo horrelakoak prebenitzeko ekintzak martxan dituzten entitateei, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzeko estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 300.000 eurokoa da. 78 eskaera aurkeztu ziren, eta 52 diruz lagundu dira[17].

17. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 5. eranskina.

## 8.3. Lankidetza sozialerako ildoak eta proiektuak

***VOLAR* DOKUMENTALA**: *Volar* film dokumentala Emakundek ekoitzi zuen 2015ean, eta Bertha Gaztelumendik zuzendu; iraganean genero-indarkeria pairatu duten bederatzi emakume dira protagonista, eta esperientziak eta bizi-ibilbidea lehen pertsonan kontatzen dute. Volar dokumentala egin eta proiektatzearen ondorioz emakume biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkarteen arteko dinamikak baliatuz, Emakunderen erreparazioko proiektuaren barruan, emakume biktimen/bizirik atera diren emakumeen elkarteekin harreman estua izan dugu.

2022. urte osoan, Emakundek filma bidaltzeko 87 eskaerari erantzun die, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardueretan erabiltze aldera, batez ere azaroaren 25eko ospakizunaren inguruan. 9 bidalketa egin dira atzerrira: Mexikora, Guatemalara eta Txilera. Proiekzio horietako zenbaitetan protagonistek parte hartu dute, entitate antolatzaileek hala eskatuta. Zehazki, 17 udalerrik eskatu dute protagonistek beren jardueretan parte har zezaten.

**SARE-PROIEKTUA INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK ATERA DIREN ELKARTEEKIN**: Emakunden urte asko daramatzagu indarkeria matxistatik bizirik atera diren eta erresilienteak diren emakumeen elkarteekin elkarlanean. 2015ean Volar dokumentalarekin hasitako lan-prozesutik, bizirik atera diren emakumeen elkarteen artean sareak sortzeko beharra nabaritu zen. Helburu horrekin, urte hauetan zehar hainbat prozesu jarri ditugu abian. 2022an, prestakuntza feminista eta ahalduntzeari buruzko topaketak izan dira azpimarragarrienak.

Indarkeria matxistaren eremuan antzemandako premien eta beharren eraginez, elkarteekiko harremana areagotu egin zen pandemian. Haiekin hainbat bilera egin ondoren, elkarteek beraiek eskatuta eta haien artean lankidetza-sare iraunkor bat sortzeko azken helburuarekin, prestakuntza bat sortu zen, eta prozesu osoan zehar emakume parte-hartzaileak izan ditu.

Helburuak:

- Elkarteetan ikuspegi feminista txertatzeko behar den prestakuntza eskuratzea, bi alderdi hauen harira: zer egin (aktibismoa/diskurtso feminista) eta nola egin (ikuspegi feminista erakundean eta praktikan txertatzea).
- Bizirik irten diren emakumeen elkarteen arteko hurbilketa erraztuko duen gune bat sortzea, loturak sendotzeko, politikak diseinatzen eta esku-hartze publikoaren eremu guztietan erabakiak hartzen parte har dezaten sustatzeko.

Prozesua honako elkarte hauei zuzendu zaie:

- Bizitu Elkartea eta Haize berria (Bilbo)
- Zure ondoan (Basauri)
- Bizirik eta Goizargi (Gasteiz)
- Mujeres al cuadrado (Eibar)
- Guerreras del Alto Deba (Arrasate)

Azkenik, gaur egungo elkarte aktiboenek parte hartu dute: Bizitu, Goizargi eta Guerreras del Alto Deba.

Bi bloke osagarri izan ditu:

- **Prestakuntza feminista**: honako eduki hauek landu dira: teoria eta mugimendu feminista, emakumeen etxeak eta ahalduntze-eskolak, desberdinkeria eta sistema patriarkala, sexu/genero sistema, ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziopolitikoa, eta asoziazionismo feminista.

Aurrez aurreko 6 saio izan dira, bakoitza 2 ordukoa, Pepa Bojó eta Maitena Monroyren eskutik, Eibarko Portalea Kultur Etxean (Eibarko berdintasun teknikariaren laguntzarekin), 2022ko iraila eta azaroa bitartean.

- **Ahalduntzeari buruzko topaketak**: gune terapeutiko bat da bizirik atera diren emakumeen elkarteetako kideentzat, aldez aurretik banakako terapia-prozesu batetik igaro direnentzat. Topaketen ardatza ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesuak sustatzea da, bai eta indarkeria ikuspegi feministatik ulertzen laguntzea ere.

  Aurrez aurreko 6 saio izan dira, bakoitza 4 ordukoa, Pepa Bojóren eskutik, Ermuko Lobiano Kultur Gunean (Ermuko berdintasun teknikariaren laguntzarekin), 2022ko iraila eta abendua bitartean.

  Topaketetan arlo pertsonaletik eta kolektibotik egin duten lana funtsezkoa izan da gatazkak detektatzeko eta konpontzeko, baita metodologia feminista duten elkarteen arteko lankidetza ahalbidetzeko ere.

Prestakuntza eta topaketak oso positibotzat jo dituzte parte-hartzaile guztiek, eta prestakuntza feminista teoriko-praktiko horrekin jarraitzea eskatu dute, bizirik atera diren emakumeen elkarteen sarean irazki sendo bat ehuntzeko.

**GENERO-IKUSPEGIA DUEN MENTORETZAKO PROIEKTU PILOTUA: EMAKUME MENTOREAK**: aurreko urtean, 2021ean, lankidetzan hasi ginen BIZITUrekin, alegia, emakumeen kontrako indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeek osatzen duten elkartearekin, Emakundek aholkularitza sozialerako «Emakume mentoreak» proiektua finantzatu eta abian jartzeko emandako laguntzaren bitartez.

Indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen BIZITU elkarteko presidenteak eta Dones mentores-Emakume mentoreak proiektuko koordinatzaileak genero-ikuspegidun gizarte-mentoretzako programa berritzaile bat aurkeztu zuten. Programa hori Kataluniako eta Madrilgo hainbat udalerritan ezarri zen 2017tik aurrera, eta Danimarkako KVINFO Mentornetvaerk (Generoari, Berdintasunari eta Aniztasunari buruzko Ikerketa eta Informaziorako Zentroa) bulegoarekin senidetu zen.

Programaren oinarria da gizarte-inpaktua areagotu egiten dela laguntza-programa publikoen osagarri den esku-hartze horizontalarekin, alegia, indarkeria matxista pairatu duten emakumeak mentore gisa inplikatuz indarkeria-egoera antzekoak pairatzen ari diren beste emakume mentoratu batzuen indarberritze-prozesuan.




“Genero-ikuspegia duen mentoretza” jardunaldia.

2021ean, proiektu pilotu berritzaile hori jarri genuen abian EAEko testuinguruan, hiru ardatz/osagairekin: Emakume Mentoreak aholkularitza, bideratzaile eta prestatzaile gisa (funtzio hauekin: aholkulariak identifikatzea, hautatzea eta trebatzea, zerbitzu bideratzaile eta mentoratuekin harremanetan jartzea, mentoreak eta mentoratuak esleitzea, monitorizatzea eta laguntza teknikoa ematea eta ebaluazioa egitea), Bizitu elkartea, emakume mentoreen hornitzaile gisa, eta Bilboko eta Barakaldoko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren mendekoa), indarkeriaren biktima izan diren emakume mentoratuak bideratzeko zerbitzu gisa.

Oztopoak oztopo, hala nola pandemia eta larrialdi sanitarioko egoera, edo Biktimei Laguntzeko Zerbitzuarekin lotutako zailtasunak gorabehera (proiektu pilotu honetarako desegokitzat jo diren bideratzeak eta eskatutako jarraipenik eza), proiektu pilotuak martxan urte eta erdi baino gehiago igaro ondoren, programa fidagarria eta erabilgarria dela egiaztatu dugu, batez ere Bizitu elkarteko aholkularien inplikazio handiagatik. Izan ere, emaitza nagusietako bat da Bizitu elkarteko 12 emakume trebatu direla mentore gisa, eta Bizitu elkarteak Emakunderekin duen lehen mentore sarea eraikitzeko oinarriak ezarri direla.

Halaber, maiatzean Iruñean egin zen Estatuko Mentoretza Kongresuan ikusarazi da proiektu pilotua, eta zerbitzu espezializatu deribatzaile gehiago identifikatu dira, baita bizirik atera diren emakumeen elkarte gehiago ere. Horien bidez, mentoreen sarea EAEko lurralde osora zabaltzeko aukera izango dugu.

Programa aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen 2022ko azaroaren 17an, Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilbon. Bertan, honako hauek hartu zuten parte: Beatriz Hernández de Fuhr, genero-ikuspegidun mentoretzako aholkulari seniorra Danimarkan, Lores López, indarkeria matxistan aditua den legelaria eta Dones Mentores-Emakume Mentoreak proiektuko koordinatzailea, eta Marga Aguilar eta Mª Mar de Miguel, Bizitu elkarteko aholkulariak. Jardunaldiak agerian utzi zuen Osakidetzak, gizarte-zerbitzu espezializatuek eta bizirik atera diren emakumeen gainerako elkarteek interes handia zutela programan, eta oso erabilgarria zela egiaztatu zen.

**PRESTAKUNTZA IJITO-IKUSPEGIAREKIN**: 2022an zehar, hainbat ekimen gauzatu dira AMUGE elkartearekin lankidetzan (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea). Alde batetik, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko sistemako profesionalentzako ijito-ikuspegidun prestakuntza diseinatze aldera 2021ean egindako diagnostikoa argitaratu da. Horren helburua da genero-indarkeriaren biktimentzako funtsezko zerbitzuetan NBEk ezarritako kalitate-estandarrak behar bezala hedatzea. Argitalpen hori prestakuntzaren diseinu-fasean parte hartu zuten profesional eta zerbitzu guztiei banatu zitzaien.



"Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen arreta EAEn" jardunaldia.

Modu berean, Emakundeko Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Arlotik jardunaldi bat antolatu zen azaroaren 14an, Bilboko BBK Kunan. Hainbat parte-hartzaile egon ziren: Amuge elkartea (EAEk ijito-ikuspegia duen prestakuntza diseinatzen izandako esperientzia azaldu zuten); genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko sistemako profesionalak; Patricia Caro Maya, indarkeriaren biktima diren emakume ijitoekin esku hartzen aditua; Veus Gitanes emakume ijitoen Kataluniako elkartea (haien esku-hartzea emakume ijitoek indarkeriaren aurkako baliabide instituzionalen barruan egin duten ibilbideari buruzkoa izan zen), eta, azkenik, Fakali elkartea (Andaluziako esperientzia partekatu zuten «Genero-indarkeria ikuspegi intersekzionaletik. Emakume ijitoak eta feminismo erromania» hitzaldiarekin.

Aldi berean, 2022-2023 biurtekoan landuko den proiektuari ekin zaio 2022an. Horren bidez, jarraipena emango zaio 2021etik aurrera AMUGEk eta Emakundek batera gauzatutako ekimenari, bi ekintza-ildorekin. Alde batetik, diagnostiko-faseko inputak bilduta, prestakuntza-programa espezifiko bat diseinatuko da genero-indarkeriatik bizirik atera diren biktimak artatzeko funtsezko zerbitzuentzat, eta, bestetik, genero-indarkeriari buruzko bi gida egin nahi dira: bata, emakume ijitoei zuzendua, batez ere, eta bestea, intersekzionalitateari, ijito-kulturari eta emakume ijitoen aurkako genero-indarkeriaren kasuak artatzeko tresnei buruzkoa.

**DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**: 2019. urtearen amaieran, Emakunde WE DECIDE programan parte hartzen hasi zen, desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen eskubideei buruzko ekimen globalean. Ekimen horrek Leave No One Behind kontzeptuan jartzen du arreta, inor atzean ez uzteko eta desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen eskubide-berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko. Programa horretan parte hartuz (UNFPAk gidatuta), Emakundek konpromisoa hartu du desgaitasuna duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko eta horien ahalduntze-prozesuan eragina izango duten jarduerak abiatzeko. 2021ean, EDEKArekiko lankidetzari esker, amaitutzat jo zen desgaitasuna duten eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzendutako gida baten edukia. Gida hori desgaitasuna duten emakumeek beraiek eta Edekaren kide diren erakundeetan parte hartzen duten profesionalek egin dute, Edekaren barruan emakumeen batzorde bat bultzatzeko, ahalduntze kolektiboko languneetan buru izango dena. Halaber, baimen aske eta informatuari eta erabaki autonomoei dagokien prozesuari buruzko gida bat lantzen hasi zen, indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituzten profesionalei zuzenduta. Gidak egiten esku hartzen duen lantalde eragilea Edekako erakundeek osatzen dute: Elkartean, Euskal Gorrak, Featece, Buru Osasuna Euskadi, Fevapas, Fevas, Fevaspace, Asocide Euskadi eta Once.

2022an, Emakumeen Batzordea bultzatzen jarraitu da Edekaren barruan, eta «Adostasun aske eta informatuaren prozesuari eta erabaki autonomoak hartzeari buruzko gidaren» edukia idazten amaitu da. Bi gidak entzumen-desgaitasuna duten emakumeentzat, gor-itsuentzat, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten emakumeentzat eta ikusmen-desgaitasuna duten emakumeentzat eskuragarri egotea lortu nahi da, besteak beste.

## 8.4. JABETUZ programa

2015. urtean, Emakundek «JABETUZ» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen kontrako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako online emandako lehen oinarrizko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa horren bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako instituzioetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

**JABETUZEN OINARRIZKO IKASTAROA**: online oinarrizko prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du, 6 gaikako unitate ditu, eta ikastaroaren helburu nagusia, batez ere, Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduntzea da.

2022. urtean, oinarrizko Jabetuzen bi ikastaro eman dira: 15. edizioa otsailaren 14an hasi zen eta 16. edizioa irailaren 12an. 182 pertsonak hartu dute parte; 29 gizonak izan dira, eta gainerako 153ak, berriz, emakumeak, biktima horiei arreta emateko erakundearteko esku-hartze eremu guztietakoak, hala nola sistema judiziala, soziala, hezkuntzakoa, sanitarioa eta segurtasunekoa.

**JABETUZ PRESTAKUNTZA AURRERATUA**: oinarrizko ikastaroaz harago, Erankundearteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten instituzioek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharretan aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharrei dagokienez ere. Hain zuzen ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zen, hauetan esaterako: «Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima izan diren seme-alabak» eta «Desgaitasuna duten emakumeak».

Horrela, 2016an ikastaro aurreratua jarri zen abian. Orduz geroztik, pixkanaka eduki berriak txertatuz eta/edo horietan sakonduz joan da, eta, hala, eskola-ordu gehiago ditu ikastaroak.

Gainera, 2021ean indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeei buruzko ikastaro berri bat eman zen, 20 ordukoa. Bereizita eskaini zen, aurretik Jabetuz ikastaro aurreratua egin zuten ikasle guztiek eduki berri hori eskura zezaten.

2022. urtean, prestakuntza berregituratu egin da, hasieran pentsatutako Jabetuz ikastaroan gai berriak txertatu direlako arian-arian. Horrela, Jabetuz prestakuntzak hainbat ikastaro izango ditu urte honetatik aurrera. Modu independentean deitu eta ziurtatuko dira, eta IVAPen homologazioa dute.

2022an ikastaro hauek egin dira Jabetuz programaren prestakuntza aurreratuaren barruan:

1. **Indarkeria matxistaren biktima diren seme-alabei buruzko ikastaroa**, 30 ordukoa, irailaren 12an hasi eta urriaren 9an amaitua. Guztira, 99 pertsonak hartu zuten parte, eta horietatik 94 emakumeak ziren eta 5 gizonak. Ikastaro horrek bi unitate didaktiko ditu, eta gaiari buruzko araudia jorratzen du, giza eskubideen, haurren eta

generoaren ikuspegi hirukoitzetik; seme-alabek zuzeneko biktima gisa pairatzen duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, eta, era berean, gogoeta egiten da amaren eta seme-alaben arteko loturan sor daitezkeen kalteei buruz, baita indarkeria hori jasaten duten amek beren seme-alaben zaintzan eta babesean duten zeregina indartzeko beharrari buruz ere.

2. **Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumeei buruzko ikastaroa**, 45 ordukoa, martxoaren 28an hasi eta ekainaren 12an amaitua. Guztira, 85 pertsonak hartu dute parte; horietatik 80 emakumeak eta 5 gizonak. Ikastaro horrek 5 unitate tematiko ditu, eta desgaitasuna duten emakumeek dituzten oztopo fisikoak eta psikosozialak ikusaraztea du helburu, baita arreta-baliabideak eskuratzeko dituzten zailtasunak ikusaraztea ere. Modu espezifikoagoan lantzen ditu desgaitasun fisikoa eta organikoa, entzumen-desgaitasuna, gaixotasun mentala, adimen- eta garapen-desgaitasuna eta ikusmen-desgaitasuna duten emakumeen errealitatea eta premiak.

3. **Indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeei buruzko ikastaroa**, 30 ordukoa, urriaren 10ean hasi eta azaroaren 6an amaitua. Guztira, 90 pertsonak hartu zuten parte, eta horietatik 82 emakumeak ziren eta 8 gizonak. Ikastaro hori bi unitate didaktikok osatzen dute. Indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeek pairatu duten eta pairatzen duten indarkeria ikusaraztea da helburua. Lehenengo gaian, adineko emakumeen aurkako genero-indarkeria aztertzen da, bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin dituzten harremanetan: arrisku-faktoreak, zer oztopori egin behar dieten aurre, zer estrategia garatzen dituzten tratu txarrekin bizitzeko, zer ondorio dituen indarkeriak, eta, azkenik, biktima horien arreta hobetzeko zenbait proposamen egiten dira. Bigarren gaia praktikoagoa da, alegia, profesionalek aurki ditzaketen indarkeria-egoerei nola heldu lantzen da, sei kasu praktikoren bitartez.

## 8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak

2015etik, Informazio Sistemen Taldearen ekimenez, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren inguruko datu estatistikoei buruzko urteko txostenak egiten dira. Urte horretatik aurrera, EAEn biktima diren emakumeei eta adingabeei laguntzeko baliabideei buruzko txostenak egiten dira urtero, baita baliabide horien irismena ebaluatzekoak ere.

Txosten horien bidez, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren intzidentziaren eta horri ematen zaion erantzunaren erradiografia zehatza lortzen da, eta, horri esker, arreta-baliabideen sarean zer erronka dauden eta zer eremu hobetu behar diren jakin genezake.

**Estatistika-datuei buruzko txostenak:**
Azterlan eta Analisien Atalak (Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza) hilero eta urtero bidaltzen dituen datuekin egiten dira. Estatistika-datuez gain, txosten horietan emakumeen kontrako indarkeria matxistaren intzidentziari buruzko azterketak jasotzen dira.

**Arreta-baliabideen datuei buruzko txostenak:**
2015ean, informazio kuantitatiboa biltzeko eta II. Akordioan inplikatutako instituzio publikoei laguntzeko urteko prozesu bat jarri zen abian, informazioa iraultzeko lana errazte aldera.

Informazio kuantitatiboa sistematikoki biltzen da Emakunderen aplikazio baten bidez. Aplikazio horrek hainbat indarkeria motaren biktimei zuzendutako zerbitzuak edo baliabideak dituzten instituzio publiko guztiak (Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, foru-aldundiak eta toki-erakundeak) hartzen ditu barne, Istanbulgo Akordioarekin bat etorriz. Zehazkiago, bikotearen edo bikotekide ohiaren esparruan edo familia barruan emakumeen kontrako indarkeria matxista pairatu duten biktimei zuzenduak izango dira, baita sexu-indarkeria eta beste indarkeria mota batzuk pairatu dituztenei zuzenduak ere (sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, ezkontza behartuak eta emakumeen genitalen mutilazioa).

Bildutako informazioarekin, analisi-txostenak egiten dira, honako helburu hauekin:

1. EAEko instituzio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arretaren irismenari buruzko datu estandarizatuak biltzea, baliabide mota bakoitzaren erabiltzaileen bolumena kuantifikatzeko eta profilak deskribatzeko.
2. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimentzako baliabideen inbertsioa eta ezaugarriak neurtzeko zenbait adierazleri buruzko datuak biltzea (langileei, prestakuntzari, gastuari, egoitza-plazei eta abarri dagokienez).
3. Biktima horiei arreta ematen dieten instituzio guztiei EAEko instituzioen erantzunaren erretratu bat eskaintzea, hausnarketa partekatua errazteko eta zer alderdi kritiko dauden eta zer eremutan hobetu daitekeen jakiteko.

2021ean datu-galdetegia berriz diseinatu zen, edukiak sartu eta doitzeko. Halaber, informazio-bilketa osatzeko aukera ematen duten aldagaiak txertatu ziren:

- Emakumeek pairatzen duten indarkeria mota (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa edo bestelakoak).
- Emakumeen egoera administratiboa.
- Baliabideetan artatu diren emakume horien seme-alaben kopurua.

Aplikazioa berriz diseinatu da, sarbide eta erabilera arinagoa, intuitiboagoa eta errazagoa izan ditzan. Instituzio informatzaileei emandako datuei buruzko banakako txostenen itzulketa txertatzeko baliatu da.

Urteko txosten guztiak Emakunderen webgunean daude, «Txostenak, estatistikak eta ebaluaketak» atalean.

Atal horretan bertan, erailei buruzko datu estatistikoak eta Segurtasun Saileko Azterlan eta Analisien Atalak hilero bidaltzen dituen taulak ere kargatzen dira.

**Baliabideen mapa:**
2022an, eguneratuta mantendu da baliabideen mapa. EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen eskura dauden baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu, baita biktima diren emakumeei eta adingabeei arreta emateko eskaintza publikoa ere.

Informazioa baliabide bakoitzak emakumeei ematen dien laguntza motaren arabera sailkatu da: segurtasuna, informazioa eta orientazioa, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoa, bizitegi- edo etxebizitza-laguntza, asistentzia sanitarioa, ahalduntzea eta beste batzuk.

Mapan jasotako informazio guztia eguneratu egiten da biktimei emandako arretari buruzko datuak jasotzen direnean. Modu berean, instituzioek berek ere eguneratu ditzakete haiei buruzko datuak, datuak biltzeko aplikazioaren bidez.

## 8.6. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen funtzioak: akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduketa bateratuak proposatzea, erakundearteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduketa-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten biktimei laguntza ematen dieten instituzioak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalek erabili behar dituzten jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere eremuan egin behar duen lanerako, bai instituzioen arteko harremanetarako.

Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

2022ko abenduaren 20an, Jarraipen Batzordearen urteko ohiko bilera egin zen Emakunderen egoitzan, eta bertan egon zen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua. Bilera horretan, Emakundeko zuzendari eta batzordeburuak EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioa diseinatzeko egindako lanen berri eman zuen, eta akordioaren azken dokumentua aurkeztu zuen, bertaratutako pertsona guztiek azken gogoetak egin zitzaten. Azkenik, bozketa egin zen eta III. Akordioa aho batez onetsi zen.

Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako eratuak, batzordeak edo Erakundearteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren araberako gaiak aztertzeko. Gaur egun, Informazio Sistemaren Taldea da martxan dagoen lantalde tematikoa.



Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.

**Erakundearteko Talde Teknikoa**

Emakundek Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu du. Talde horrek hiru lan-saio egin ditu 2022an, eta guztiak EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren egitura eta edukiak adosteari buruzkoak izan dira.

- Lehenengo lan-saioa 2022ko martxoaren 1ean egin zen, III. Akordioaren jardunaren printzipio gidariak kontrastatzeko eta adosteko helburuarekin, Emakundek aurkeztutako lehen zirriborro batetik abiatuta.

- Bigarren saioa 2022ko ekainaren 7an izan zen, III. Akordioaren sistemen arteko koordinazio-jarraibideen apartatua adosteko. Jarraibide horiek aldez aurretik prestatu ziren, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko sistema osatzen duten instituzio bakoitzarekin aldebiko bilerak eginez, eta, ondoren, horiek orraztu egin ziren, kontrasterako beste bi zirriborro-dokumentu prestatuta.

- 2022ko urriaren 17an egindako azken bilkuran III. Akordioaren 4. zirriborroa aurkeztu zen, Emakunderen talde eragilean adostu ondoren. Oraingo honetan, Emakundeko zuzendariak ongietorria eman zion taldeari, eta bilkuran zehar egin beharreko lanari ekin zion, aurreikusitako gai-zerrendaren arabera. Bilera horretan, II. Akordioaren eta III. Akordioaren txosten konparatibo bat azaldu zen, eta Erakundearteko Talde Teknikoa osatzen duten instituzio eta entitateetatik jasotako ekarpen guztiak nabarmendu ziren. Taldearen eztabaidaren bidez, laugarren zirriborroari lehen ekarpenak egin zitzaizkion, eta erabaki zen talde teknikoaren ekarpenak biltzen zituen azken zirriborro-dokumentua Jarraipen Batzordeari ere bidaltzea, maila teknikoan zein politikoan baliozkotu eta adostu zedin. Bileraren amaieran, gainera, «Indarkeria matxistaren biktimen datu pertsonalak babesteko gida» berriaren zirriborroa aurkeztu zen.

**Informazio Sistemen Taldea**

Informazio Sistemen Taldea 2013an sortu zen, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren esparruan, eta honako helburu hauek ditu:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeria matxista agertzeko moduen ezaugarriak, kausak eta ondorioak aztertzea eta zabaltzea.

2. Diagnostikoak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera identifikatzea ahalbidetzeko.

3. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta egiteko baliabide eta zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzea.

Indarkeriaren biktimei arreta ematen eta horiei buruzko datuak jasotzen diharduten instituzioetako teknikariek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako hainbat sail (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak —Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzak—, Osasuna —Osakidetza—, Segurtasuna, Lana eta Enplegua —Lanbide—, Hezkuntza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa —Etxebizitza Zuzendaritza—), hiru foru-aldundietako eta toki-erakundeetako berdintasun-zerbitzu espezializatuak (Eudel).

Urtero bilera bat egiten da, eta, bertan, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko datuak aurkezten dira (bai estatistikoak, bai baliabide publikoetan biktimei ematen zaien arretari buruzkoak), lortutako informazioari buruzko gogoeta egiten da, eta hobekuntzak planteatzen dira hurrengo datu-bilketei begira. 2022ko azaroaren 9an egin zuen Informazio Sistemen Taldeak urteko osoko bilkura, Emakunderen egoitzan.

**Sexu-indarkeriari buruzko Talde Teknikoa**
2022an, Emakundek bultzatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-indarkeria artatzeko 24 orduko krisi-zentroak abian jartzeko koordinazio-talde teknikoa osatu da. Biktimei arreta hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan eratu da talde hori, EAEn sortuko diren hiru krisi-zentroek 24 orduz modu koordinatuan jardungo dutela bermatzeko.

Taldea hiru foru-aldundiek eta Emakundek osatzen dute, eta taldearen berehalako helburua da sortuko diren krisi-zentro guztiek gutxieneko ezaugarri komunak dituztela ziurtatzea, EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiei arreta emateko lehendik zeuden arreta-ereduekin koherenteak izan daitezen.

Lantalde horrek 3 bilera egin ditu: maiatzaren 9an, ekainaren 9an eta azaroaren 15ean. Azaroko azken lan-saio horretan Barnahus proiektuaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzak ere parte hartu zuen.

Gainera, 2022an, Emakundek 4 unitate didaktiko egiteko kontratua egin die profesional espezializatu hauei: Nerea Barjola, Carmina Serrano, Norma Vázquez eta María Naredo. Horrela, EAEko sexu-indarkeriaren arretarako 24 orduko zentroak osatuko dituzten talde profesionalei hasierako prestakuntza eman ahal izatea ziurtatu da.

**Sailarteko Talde Teknikoa**
Horrez gain, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Sailarteko Talde Teknikoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatu Itunera, Istanbulgo Hitzarmenera eta Euskadi Basque Country Agendara egokitzeko lan bat egin zuen 2019an. Lan horren ondorioz, egoerari buruzko txosten bat eman zen, eta dokumentu operatibo bat hartu zen horren barnean, 4 baliabide juridiko horien ezarpen-mailari jarraipena egite aldera. 2020., 2021. eta 2022. urteetan, taldeak telematikoki lan egiten jarraitu du, hasiera batean pandemia dela eta; gainera, dokumentu operatiboaren sei hilean behingo eguneratzeak eta urteko eguneratzeak egin dira, aipatutako baliabide juridikoak batera ezartzeko.

**Baliabideen kudeaketa integratua**
2022an, hasiera eman zaio EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetzeko kudeaketa integratuan pixkanaka aurrera egitea ahalbidetuko duen lan-prozesu bati.

EAEko instituzio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei eskaintzen dieten arretan hiru administrazio-mailetako instituzioak daude sartuta: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzan sei sail daude konprometituta (Segurtasun Saila, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, Osasun Saila, Lan eta Enplegu Saila eta Hezkuntza Saila) eta horietako bakoitzak hainbat programa eta zerbitzu eskaintzen dizkie biktima horiei.

Kudeaketa integratuan aurrera eginez gero, zerbitzu, programa eta instituzio horien arteko koordinazioa indartuko da, biktima horiei ematen zaien arretan integraltasun eta pertsonalizazio handiagoa lortzeko eta birbiktimizazioa saihesteko.

Proiektu horren helburua bat dator Gobernu Programan jasotako ekimenetako batekin. Zehazki, 5. ekimenarekin, hau da, «Espedienteen kudeaketa integratua ahalbidetzen duen leihatila bakarra abiaraztea indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko, horrela, pertsonalizatutako ekintza-programak ezarri ahal izateko», zeina 93. konpromisoaren barruan baitago, «Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen kontrako indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea».

2022an egindako lan-prozesuarekin, proiektuaren lehen fasea bete da. Fase horretan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren zerbitzu eta prestazioen arteko koordinazioaren hobekuntzak aztertu eta identifikatu dira, gaur egun sail horretan biktimei zuzendutako zerbitzu ugari egoteak dakarren aukera aprobetxatuz. Prozesu horren emaitza jendaurrean aurkeztu da azaroaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako jardunaldian, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Emakundeko zuzendaria bertan zirela.

Gainera, helburu hori lortze aldera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin lankidetzan hasi gara, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko atari tematiko bat diseinatu eta abian jartzeko. Atari horretan, etorkizunean, baliabideen kudeaketa integratuarekin lotutako elkarreragingarritasun-aukera egon daiteke, herritarrei eta biktimekin lan egiten duten profesionalei zuzendutako zerbitzuekin. Lan-esparru horren harira, guztira 4 bilera egin dira 2022ko maiatzetik abendura..

## 8.7. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak

Emakundek koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu, eta aholkularitza eskaintzen du, toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, hala eskatzen badute. Era berean, hainbat modutan aritzen da elkarlanean indarkeria matxistaren aurkako jarduketa-protokoloak prestatzen ari diren berdintasun-zerbitzu, instituzio eta entitateekin: laguntza teknikoa, aholkularitza, esku-hartzea, jardunbide egokiak biltzea, etab.



Lan-jardunaldia, Euskalduna Jauregia.

## 8.8. Adineko emakumeak

2020an, egoeraren diagnostikoa egin zen, baita esku hartzeko proposamen bat elkarlanean diseinatu ere. Proposamen horren helburua adineko emakumeen kontrako indarkeria matxistak prebenitzea da, betiere EAEko emakumeen etxeekin elkarlanean.

2021ean, «Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak. EAE-Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeekin egindako proiektua» argitalpenean jaso zen diagnostiko-lan hori guztia. Azaroaren 23an aurkeztu zen jendaurrean, Euskalduna Jauregian, Emakundek antolatutako «Adineko emakumeak, emakume boteretsuak indarkeriaren aurrean» jardunaldi monografikoaren esparruan. Horrez gain, 2021ean, Jabetuz programaren esparruan, indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeei buruzko prestakuntza-ikastaro bat antolatu zen, 20 ordukoa.

2022an, adineko emakumeen errealitatearen ezagutzan sakontzeko asmoz, Jesús Goyenechea Vidal antropologo, gizarte-hezitzaile eta Jabetuz elkarteko irakasleari bi gida egiteko eskatu zitzaion, bata adineko emakumeen kontrako indarkerietan eta tratu txarretan esku hartzen duten profesionalentzat, eta bestea adineko emakumeentzat. Gida horretan, gida didaktiko bat eta adineko emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko baliabideen atal bat daude.

Gainera, honako gida hau zabaldu eta Emakunderen webgunean jarri da: «Hautemateko eta hasierako uneetan laguntza emateko gida. Adineko emakumeen kontrako indarkeria matxista bikote eta/edo bikote ohi harremanetan», Ede-Suspergintzak egina, Emakunderen dirulaguntza batekin.




Gidaren azala.

## 8.9. Emakumeen genitalen mutilazioa

2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu baten langai eta aztergai izan da emakumeen genitalen mutilazioa (EGM), emakumeen kontrako indarkeria mota bat baita.

2014. urtean EAEn egindako emakumeen genitalen mutilazioari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta EAEko Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMri aurrea hartzeko arlo sanitarioko eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalek osatutako talde sanitarioak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzegune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzailetzako profesionalek osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2022an ere Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Modu koordinatuan egin dira aholkularitza eta bideratzeak, gizarte-zerbitzuekin, Osasun Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Jardunaldietara joan gara, eta UNAFek antolatutako informazio-bilerak egin ditugu, ezagutza hobetzeko, konpromisoen berrikuspenak egitea egokia den aztertzeko eta esparru horretan jarduteko ildo berriak aztertzeko. Gainera, seigarren urtez jarraian, Emakundek bat egin du Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak «indartzeko» NBEk egindako eskaerarekin, ekintza horren aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

## 8.10. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa

Gizakien salerosketari heltzeari dagokionez, Askabide erakundeari emandako dirulaguntza izendun bat izapidetu eta kudeatu da, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeei eta horien seme-alabei arreta integrala emateko baliabidea kudeatzeko eta biktima horiei arreta anbulatorioa emateko. Gainera, Congregación Oblatas del Santísimo Redentor entitatearentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

2022ko ekitaldian, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeentzako eta horien seme-alabentzako bizitegi-baliabidea mantentzen eta zuzenean kudeatzen jarraitu da. Etxebizitza hori 2019an gaitu zuen Emakundek, eta 2020ko urtarriletik dago martxan. 6 pertsonarentzako tokia dut. Ertzaintzak berariaz horretarako emandako txosten batean proposatutako segurtasun-neurriak biltzen ditu.

Halaber, Emakundek bultzatu eta koordinatzen duen Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketari buruzko mahaiarekiko koordinazioari eutsi zaio. Bertan parte hartzen dute, Emakundez gain, Ertzaintzaren Zuzendaritzak eta Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak, Familia eta Haurren Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Zuzendaritzak, Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiak, hiru foru-aldundietako adingabeen zerbitzuek, Espainiako Gobernuak EAEn duen Ordezkaritzak, segurtasun-indar eta -kidegoek, eta hamaika GKEk (Caritas, CEAR Euskadi, Munduko

Medikuak, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Aukera, Save the Children, Askabide, Oblatas eta Accem).

2022. urtean, Errusiak Ukraina inbaditu, gerra lehertu, eta emakumeen eta neskatoen exodoaren ondorioz, harremanak areagotu dira erakunde espezializatuekin eta mahaiko gainerako instituzioekin, salerosketa-sareetan harrapa ditzaketen emakumeak eta neskatoak detektatu eta artatu ahal izateko, muturreko zaurgarritasuna dutelako.

Bestalde, 2022an, Salerosketaren aurkako Erakundearteko Mahaia osatzen duten eragile guztiak koordinatzeko beharrezkoak diren dokumentuak berrikusteko prozesua hasi da. Hori, gainera, mahaiaren osoko bilkurak 2021eko irailaren 22an egindako bileran adostu zen. Honako lan hauek egin dira: 2021ean onartutako adierazleak eguneratzea, baliabideen gida eguneratzea eta jardunbide egokien fitxak egitea. Horrez gain, sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren aurkako protokoloa berrikusteko eta eguneratzeko prozesua hasi da.

Helburu horrekin, adierazleak egiten parte hartu zuten entitate guztiei dei egin zitzaien ekainaren 1ean, ekainaren 20an eta uztailaren 4an. Urtean zehar, entitateek beren proposamenak bidali dituzte, eta Salerosketaren aurkako Erakundearteko Mahaiari aurkeztuko zaizkio emaitza, protokoloan egindako aurrerapenak eta eguneratutako gainerako dokumentuetan egindakoak, baita 2022ko azaroaren 29ko Ministroen Kontseiluan onartutako Gizakien Salerosketaren eta Esplotazioaren aurkako Lege Organiko Integralaren aurreproiektuari buruzko alderdiak ere.

Gainera, Salerosketako Mahaiaren 2022ko ekintza-planaren barruan, otsailean (10ean eta 11n) eta maiatzean (5ean, 6an, 26an eta 27an), genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren eta atzerritartasunaren txandetako abokatuentzako sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren arloko prestakuntza espezializatuko ziklo bana egin da lurralde historiko bakoitzean. Lurralde historiko bakoitzeko prestakuntzak honako pertsona hauek eman zituzten: ICAMeko Mariano Callejak, Madrilgo Erkidegoko salerosketaren aurkako txanda espezifikoaren arduradunak; Ertzaintzako komisariorde eta Pertsonen aurkako Delituen Unitateko arduradun Hugo Prietok, eta Oblatas kongregazioko Leiho Zabalik proiektuaren arduradun Maria Luisa del Pozok.

Lan-ildo beretik jo zen Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzia-auzitegietako presidentetzarekin, lurralde historiko bakoitzean salerosketarekin lotutako epaietan inplikatutako prozesuak aztertzeko. Probintzia-auzitegi bakoitzarekin bi bilera egin ziren. Bilera horietan Abokatuen Elkargoko, Fiskaltzako, unibertsitateko, epaitegietako eta polizia-kidegoetako profesionalak ere ordezkatuta zeuden, eta analisi bat eta hobetzeko proposamen bat egin ziren sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketarekin lotutako delituetan zigor-arloko prozesuan parte hartzen duten profesionalen jardunari dagokionez.

Gainera, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak proposatuta, 2022an Emakundek «Prozesu penalari buruzko informazio-gida genero-indarkeriaren biktimentzat» berrargitaratu eta banatu du Bizkaian. Gida horren lehen edizioa 2020an egin zen, Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Batzorde Probintzialarekin lankidetzan.

Orobat, mahaiaren esparruan adostutako beste konpromiso bat betetzeko, hiru probintzia-auzitegiek, EAEANk eta Konstituzio Auzitegiak sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren arloan emandako epaiak genero-ikuspegitik aztertu dira.

Prestakuntzari dagokionez, azaroaren 3an, Donostia Ospitalean jardunaldi bat egin zen osasun-arloko, erizaintzako, larrialdietako, ginekologiako eta lehen mailako arretako profesionalentzat,

profesionalen kolektibo hori prestatzeko eta sentsibilizatzeko lehen fasea gauzatze aldera. Jardunaldian hizlari izan ziren Lluis Ballester doktorea, Hugo Prieto Ertzaintzako komisariordea, Maria Luisa del Pozo Oblatas kongregazioko Leiho Zabalik proiektuaren arduraduna eta Belen Matesanz Munduko Medikuak erakundearen Balear Uharteetako egoitzako presidentea.




Genero-indarkeriaren biktimentzako prozesu penalari buruzko informazio-gida.

## Ezkontza behartuak

Emakumeen eta Neskatoen Salerosketaren aurkako Erakundearteko Mahaiaren esparruan, bi jarduketa egin dira ezkontza behartuei dagokienez.

Lehenik eta behin, Salerosketaren aurkako Erakundearteko Mahaian ordezkatuta dauden instituzio guztietako profesionalei eta foru-aldundietako zerbitzu espezializatuei zuzendutako prestakuntza egin zen, Salerosketaren aurkako Europako Eguna zela eta. Ezkontza behartuei buruzko jardunaldi monografikoa izan zen, urriaren 18an, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Hizlariak hauek izan ziren bertan: Luis Lafont Madrilgo Erkidegoko fiskala, Andrea García Mossos de Esquadrako buruzagia eta Valentes y Acompayades elkarteko Nuria García eta Ruth Rosique.




Osasun-arloko profesionalentzako jardunaldia.

Era berean, ezkontza behartuen detekzio-adierazleekin informazio-dokumentu bat egin da, eta Salerosketaren aurkako Erakundearteko Mahaiaren Osoko Bilkuran eta Immigrazio Foroan aurkeztuko da.




Ezkontza behartuei buruzko prestakuntza-jardunaldia.

## 8.11. Erakundearteko lankidetza-ildoak eta -proiektuak

**GENERO-INDARKERIAKO EGOERAK EGIAZTATZEKO PROZEDURAK**

2019an, Emakundek gidatuta, oinarriko gizarte-zerbitzuekin eta EUDELekin lan-prozesu bat abiatu zen, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko judizioz kanpoko prozeduraren inguruan (gaikuntza-titulua).

2020an hausnarketa-prozesuari jarraipena eman zitzaion, eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Lanbidek eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuek parte hartu zuten. Emakumeen kontrako indarkeria matxista baloratzeko baliabide bat egitea erabaki zen, irizpideak adosteko eta foru-aldundiei erakunde egiaztatzaile gisa egin dezaketen zeregina errazteko.

2021ean, Emakumeen kontrako indarkeria matxista baloratzeko tresnaren inguruko lanari eutsi zitzaion, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin elkarlanean, indarkeria-egoeren egiaztapena gizarte-zerbitzu espezializatuetara zabaltzeko helburuz.

Azkenik, 2021eko abenduaren 2ko Ebazpenak, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarenak, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Berdintasuneko Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen duenak, kontuan hartu beharreko hainbat gai jasotzen ditu, Emakunden eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan aztertu direnak.

2022ko maiatzaren 23tik, egiaztapena telematikoki kudeatzen du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Zuzendaritzak. Erabiltzailea artatzen ari den baliabide edo zerbitzuen titular den administrazio publikoak egiaztapena telematikoki eskatu behar dio Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren

Egoitza Elektronikoan «Genero-indarkeriaren egoeren administrazio-egiaztapena» izeneko berariazko prozeduraren bidez, esteka honetan.

**POLIZIA KOORDINATZEKO PROTOKOLOAK**

makunde ordezkatuta dago Ertzaintzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen arteko koordinazio-protokoloak berrikusteko proiektuaren jarraipen-taldean. Zehazki, 2020ko abenduaren 3an (osteguna) egindako hasierako bileran parte hartu zuen, eta bertan azaldu ziren proiektuaren edukiak eta epeak, baita polizia-koordinazioaren berrikuspenaren aurretiko azterketako gaiak ere.

2021ean jarraipen-talde horretan parte hartu zen, eta horren emaitza protokoloa egin aurreko azterlana izan zen. Gainera, 2021-2024 aldirako polizia-koordinaziorako protokoloa eta ezarpen-plana prestatu dira, prestakuntzarako oinarrien proposamenak barne.

2022an, Emakunderen Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Arloak prestakuntza eman die Bilboko eta Gasteizko udaltzaingoei, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko koordinazioa hobetzeko erakundearteko akordioei buruz.

Bestetik, 2015. urteaz geroztik, Emakundek genero-indarkeriaren biktimek segurtasuna izateko laguntza ematen du. Sarraila-zerbitzua ordaintzen die, hau da, biktimaren ohiko etxebizitzaren sarraila aldatzea, betiere babes-agindua eta epailearen berariazko baimena badu aldaketa hori egiteko. 2022an 64 emakumek jaso dute zerbitzu hori, alegia, Emakundek 64 sarraila-aldaketaren kostua hartu du bere gain.

**BESTELAKO KOLABORAZIOAK**

Emakunderen Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Arloak, 2022an, besteak beste, honako hauek lantzen lagundu du: Haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia 2022-2025, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeei buruzko Legearen aurreproiektua, osasun-arloko profesionalek genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida, atzerrian emakumeen kontrako indarkeriaren biktima izan diren espainiarrak lekualdatzeko eta itzultzeko protokoloa, etab.

Era berean, ohiko kolaborazioak egiten jarraitzen da honako hauekin:

| | |
|---|---|
| Berdintasun Ministerioa | - Emakundek bi urtean behin ematen dizkio Berdintasun Ministerioari EAEko indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabideei buruzko datuak, DERA aplikazioaren bidez.<br>- Emakumeen kontrako indarkeria matxistarekin lotutako gaiei buruzko informazioa, komunikazioak, bilerak eta abar trukatzen ditugu, eta, modu berean, ekarpenak bidaltzen ditugu baloratzeko eskatzen diguten estatu-mailako dokumentuei buruz; adibidez, indarkeria matxistak prebenitzeko estatu-estrategiari buruz. |
| Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia | - Emakunde Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordeen talde teknikoaren bileretan izan da urteko lehen seihilekoan, urtarrilaren 27an, otsailaren 24an, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an.<br>- Gainera, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak genero-indarkeria koordinatzeko antolatzen duen Bizkaiko Probintzia Batzordeko kide da Emakunde. |
| Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokia | Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokian parte hartzen du Emakundek. |
| Berdinsarearen Indarkeria Matxistaren Batzordea | Berdinsarearen Indarkeria Matxistaren Batzordean parte hartzen du Emakundek. |



# 9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legean ezarritako funtzioen eta mugen arabera, Emakunderi dagokio sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzea, berehalako aholkularitzaren, idatzizko kontsulten eta kexa-prozeduren bidez.

## 9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza

Emakunderen Defentsa Arloak herritarrei arreta zuzena eta aurrez aurrekoa ematen die Gasteizen, baita arreta Bilbon eta Donostian jasotzea eskatzen duten kasuetan ere. Aurrez aurreko aholkularitzez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere jasotzen dira.

2022an, herritarren arretarako berehalako 194 zerbitzu eman dira, guztira. Horietatik gehienak (% 50) dibortzioei, banantzeei, zaintzei eta mota askotako gatazkei buruzkoak dira (auzokideen erkidegoa, lagunak...); gai horietan emakume bat izan da eskaeraren titularra, baina ez dira Emakunderen jarduketa-eremuaren eskumenekoak. Lan-esparruko galderak % 26 izan dira, batez ere familia-etxeko zerbitzuari buruzkoak. Azkenik, genero-indarkeriaren inguruko aholkularitzak zenbatu dira (eskaeren % 24).







Liburuxka.

## 9.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa

2022. urtean, guztira 73 kontsultari erantzun zaie idatziz. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoien artean, 56 lan-esparrukoak dira; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da. Azken esparru horretan emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina, hala ere, idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dituzte eskaera horiek ere. Zerbitzuen arloko 4 aholkularitza-saio izan dira, bestalde, kirol-arloko eta komunikabideen eta publizitatearen esparruko kontsulta bana jaso ditu.

Halaber, 30 kexa-prozedura kudeatu dira 2022an. Espediente guztietatik, 9 gomendio bidali dira, guztiak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatzeko proposamenetan oinarritutakoak. 19 espediente beste instituzio batzuetara bideratu dira, horietatik 9 Emakumeen Institutuaren Madrilgo Irudiaren Behatokira; eskabide bat Nafarroako Berdintasunerako Institutura, eta, horrez gain, publizitatea eteteko eskaera bat bidali da. Gainera, sei kexa bideratu zaizkio Arartekoari; hiru beste administrazio publiko batzuei, berdintasunerako teknikarien bidez.

Bestalde, eskaera bat artxibatu egin da, eskaera bidali duten pertsonek ez baitute informazio gehigarririk bidali ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko.

| | 2022 |
|---|---|
| **HERRITARREN BEREHALAKO ARRETARAKO ZERBITZUAK** | **194** |
| - Lan-esparrua | 50 |
| - Indarkeria | 47 |
| - Beste batzuk | 97 |
| **IDATZIZKO KONTSULTAK** | **73** |
| - Lan-arloa | 56 |
| - Beste batzuk | 11 |
| - Zerbitzuen esparrua | 24 |
| - Hedabideak eta publizitatea | 1 |
| - Kirol-arloa | 1 |
| **KEXAK** | **30** |
| - Publizitatea eta komunikabideak | 17 |
| - Lan-esparrua | 7 |
| - Zerbitzuak | 2 |
| - Beste batzuk | 2 |
| - Kirola | 2 |

Gizarte-arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 95.3 artikulua aplikatuz, Bilboko 10. gizarte-arloko epaitegiak eskatuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak irizpen bat eman zuen langile batek sexu-bereizkeriagatik aurkeztutako demanda bati buruz. Irizpenean ondorioztatu zen langileak berdintasun-diagnostikoan eta -planean parte hartzeagatik errepresaliak pairatu izana sexuagatiko diskriminazioa izan zitekeela.

# 10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN

Profesionalen prestakuntza oinarrizko estrategia da generoarekin sentikorrak diren politikak garatzeko. Hori dela eta, prestakuntza lan-eremu garrantzitsua da Emakunderentzat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen erregulazioak eta planak jasotzen dutenez.

2022an, aurrera egin da Emakundek eskaintzen duen prestakuntzan. Horretarako, prestakuntza-plan bat garatzen ari gara online prestakuntzako web-atari instituzionalerako. 2022an, prestakuntza-atariaz gain, Emakundek udako ikastaro bat eta beste hainbat prestakuntza-jardunaldi antolatu ditu.

## 10.1. UPV/EHUko udako ikastaroa

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean, «Klima-aldaketa eta feminismoa: oraina birpentsatu etorkizuna eraikitzeko» ikastaroa antolatu zuen.

Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren:

- Ikuspegi integral batetik, feminismoaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta klima-ekintzaren arteko harremanari buruz **hausnartzea**, egungo erronkei erantzuteko.
- Feminismoa eta genero-ikuspegia barne hartzen dituzten esparruak eta klima-politikak **identifikatzea**, baita ikuspegi ekologikoa barne hartzen duten berdintasun-esparru eta -politikak ere, elkargune horien onurei heltzeko.
- Estrategia eta praktika berriak **birpentsatzea eta proposatzea**, mundu jasangarriagoa eta bidezkoagoa berreraikitzeko.



UPV/EHUko udako ikastaroa.

7 hitzaldi, solasaldi bat eta mahai-inguru bat egin ziren:

| | HIZLARIAK | IZENBURUA |
|---|---|---|
| HITZALDIAK | Lorena Aguilar Revelo | Generation Equality kanpaina, Justizia Klimatikoaren aldeko Ekintza Feministarako Koalizioa, NBE Emakumeak erakundeak babestua. |
| | Alicia H. Puleo | Beste etorkizun posible baterako ekofeminismoa. |
| | Dina Garzón | Ekofeminismoa klima-aldaketaren aurrean. |
| | Cintia Bartolomé Esteban | Generoaren araberako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. |
| | Bilur eta Etxaldeko Emakumeak kolektiboetako partaideak | Elikadura-burujabetza eta feminismoa. |
| | Cristina Alonso Saavedra | Krisi klimatikoari begirada ekofeminista: ugalketan eta bizitzaren zaintzan dituen inpaktuak. |
| | Dolores Romero | Ingurumena, osasuna eta generoa. |
| SOLASALDIA | Laura Laguna<br>Candela Fernández-Silgado | Gazteen borroka klima-aldaketaren aurka. |
| MAHAI-INGURUA | Irma Blanco Garcia<br>Federica Ravera Cerda<br>Uxua Lopez Pacheco | Klima-aldaketaren aurkako esperientziak. |

## 10.2. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak

Udako ikastaroen, Gizonduz ekimenaren eta Jabetuz programaren bidez egindako prestakuntza-eskaintzaz gain, Emakundek, 2022an, prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-jardunaldi hauek antolatu ditu aurreko ataletan xehetasun handiagoz deskribatu diren hainbat entitate eta talderentzat:

- Nahiko programaren esparruan, 7 hitzaldi online.
- Gizonduz ekimenaren esparruan, 4 prestakuntza-jarduera.
- Enpresekiko lan-eremuan, 2 prestakuntza-jarduera.
- BAI SAREA Berdintasunerako lankidetza-erakundeen sarearen barruan, 5 prestakuntza-saio eta 2 umore-pilula.
- Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eremuan, 4 prestakuntza.

Halaber, ekainaren 1ean «Genero-ikuspegia klimaterioaren eta menopausiaren esku-hartze sanitarioan» izeneko online saio bat antolatu zen, Carmen Valls hizlari izan zuena. Interbentzioaren helburua honako galdera hauei erantzutea izan zen: zer egin dezakegu gure hezurren kalitatea hobetzeko? Nola saihestu artikulazio-mina? Zer eginkizun du nutrizioak eta ariketa fisikoak bizi-kalitatean? Nola zaindu behar ditugu gure bihotzak?




«Genero-ikuspegia klimaterioaren eta menopausiaren esku-hartze sanitarioan» online hitzaldia.

## 10.3. Lankidetza IVAPekin

Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileen berdintasunari buruzko aholkularitza ematen eta zeharkako prestakuntzaren garapenean laguntzen jarraitu da: prestakuntza-eskaintzaren diseinua, prestakuntza-premia berrien identifikazioa eta ikastaro berrien proposamenak.

Gainera, prestakuntza-ikastaro hauek ematen lagundu da:

- «Proiektuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroa» (edizio bat).

## 10.4. Lankidetza-ildoak unibertsitateekin

Unibertsitateekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da unibertsitate-sisteman berdintasuna sustatzeko, baita unibertsitateko ikasketetan eta ikerketan genero-ikuspegia txertatzeko ere.

Ildo horretan, Emakunde lankidetzan aritzen da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasun Zuzendaritzarekin eta EAEko unibertsitateetako beste berdintasun-zerbitzu batzuekin, interes komuneko proiektu eta ekimenetan. Helburu nagusia da unibertsitate-komunitatea berdintasun-gaietan trebatzea, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten eta esku-hartze sozialean parte hartzen duten berdintasun-agenteen eta bestelako profesionalen prestakuntza espezializatua ziurtatzeko.

2022an honako lankidetza hauei eutsi zaie:

| JARDUKETAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Berdintasunari buruzko online prestakuntza-ikastaroak | - 2018an UPV/EHUrekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan,<br>- emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko online ikastaroaren 5 edizio egin dira, baita gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko ikastaroaren 4 edizio ere, berdintasun-politikak eta prestakuntza-ekintzak batera sustatzeko.<br>- 1.678 pertsonak gainditu dituzte ikastaro horiek (1.299 emakume eta 384 gizon). |
| Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna masterra | - UPV/EHUk antolatutako Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna masterrarekin elkarlanean aritu gara, profesionalak berdintasunerako eragile gisa lan egin dezaten gaitzeko.<br>- Hiru irakasgai eta aurrez aurreko saio bat eman dira, eta praktikak Emakunden egitea erraztu da. |

| JARDUKETAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra | - Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-master ofizialaren garapenean ere lankidetzan aritu gara, ikasleentzako 8 bekaren bidez (guztiak emakumeak).<br>- Prestakuntza-saio bat egin da. |
| Justizia sozialaren aldeko klinika juridikoa | - UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko gizarte-justiziaren aldeko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritu gara, benetako kasuak, ezagutzak eta esperientziak emanez.<br>- Zuzenbide Graduarekin elkarlanean aritu gara, ikasleek derrigorrezko praktikak Emakunden egin ahal izan ditzaten. |
| Emakume teknologoaren Ada Byron saria | Deialdia antolatzeko laguntza ekonomikoa eman eta Ada Byron Sariaren epaimahaian parte-hartu dugu, teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortu eta ikusgarri egiteko. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta emakumeek ekarpen handiak egiten dituzten hainbat eremutan. |

# 11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak eta horien eragina aztertzea. Izan ere, horrela bakarrik diseinatu eta gauzatu ahal izango dira berdintasunik ezak zuzentzeko politika egokiak, baita berdintasunik ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Horretarako, Emakundek txostenak, gidak eta bestelako materialak egiten ditu bere argitalpen-lerroaren bidez, eta dokumentazio-zentro bat ere badu. Emakundek, halaber, genero-ikuspegidun ikerketa sustatzen du eta hura zabaltzen laguntzen du, ikerketa-beken eta argitalpen-lehiaketaren bidez.

## 11.1. Txostenak eta azterlanak

**EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak**
Urteko Zifrak txostenari esker, EAEko eremu sozial, ekonomiko eta politikoetan emakumeek eta gizonek bizi duten errealitatearen ikuspegi globala lortzen da, bai unean unekoa, bai eboluziozkoa. Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoen eskura jartzea, eta horiek ezabatzera bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

2022ko Zifrak txostenak eskuragarri dagoen informazio estatistiko ofizial eguneratuena bildu eta aztertu du, batez ere EUSTATek eta beste estatistika-institutu batzuek (hala nola Espainiako Estatistika Institutuak eta Eurostatek) arlo hauetarako sortutakoa:

1. Demografia
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna
6. Parte-hartzea
7. Emakumeen kontrako indarkeria

## 11.2. Ikerlanetarako bekak

